



EUSKAL HERRIA 2004-2024 ADIERAZLE GALERIA

EUSKAL HERRIA

2004-2024

ADIERAZLE GALERIA

Argitaratze-data: 2024ko azaroa.

Argitaratzailea: Gaindegia. Euskal Herriaren garapen sozial eta ekonomiko iraunkorrerako behategia.

Internet helbidea: www.gaindegia.eus

Edukien, diseinu, mapak eta datuak: Aztiker.

Testu originalak: Aztiker, Gaindegia.

Argazkiak: Foku, Gaindegia.

Maketazioa: Bidera Zerbitzuak (Berria Taldea).

Inprimaketa: Leitzaran Grafikak.

ISBN: 978-84-09-67331-5

Lege gordailua: LG D 01065-2024

Babesleak:



Egile -eskubideak:



EUSKAL HERRIA
2004-2024
ADIERAZLE GALERIA

2004-2024 ADIERAZLE GALERIA

DEMOGRAFIA

1.1	BIZTANLERIA	12
1.2	BIZTANLERIAREN DENTSITATEA	14
1.3	BIZTANLERIAREN ADIN EGITURA	16
1.4	MIGRAZIOAK	21
1.5	JAIOZAK	24
1.6	HERIOTZAK	25

EKONOMIA

2.1	BPG: URTE ARTEKO HAZKUNDEA	28
2.2	BPGa BIZTANLEKO	29
2.3	BALIO ERANTSIAREN EGITURA	30
2.4	ONDASUN ETA ZERBITZUEN ESORTAZIOAK	32
2.5	ONDASUN ETA ZERBITZUEN INPORTAZIOAK	33
2.6	MERKATARITZA -BALANTZA	35
2.7	BERRIKUNTZA JARDUERAK	36
2.8	LANAREN PRODUKTIBITATEA	38
2.9	ENPRESA INBERTSIOA	40
2.10	LANSARIAK	42
2.11	HERRITARREN ERRENTA	43

GIZARTEA

3.1	EUSKARA	48
3.2	BIZTANLERIAREN FORMAZIO MAILA	53
3.3	HERRITARREN JARDUERA	56
3.4	ENPLEGU-MAILA	58
3.5	LANGABEZIA MAILA	61
3.6	KONTSUMO PREZIOEN BILAKAERA	65
3.7	POBREZIA ARRISKUA	66
3.8	GIZARTE BABESEKO INBERTSIOA	68

INGURUA

4.1	AIREAREN KUTSADURA	72
4.2	ALDAKETA KLIMATIKOA	73
4.3	ENERGIAREN KONTSUMOA ETA ERREGAIK	75
4.4	ELIKAGAIEN KONTSUMOA	77
	METODOLOGIA LABURPENA, MAPAK ETA DATU ITURRIK	82

GAINDEGIA, DUELA 20 URTE

5.1	ANTXON LAFONT	86
5.2	ZERTAN DA EUSKAL HERRIA? XABIER ISASI	88
5.3	BEHATEGI BATEN HASTAPENAK. IMANOL ESNAOLA	90

GAINDEGIA 2030

6.1	ERREPORTAJEA	94
-----	--------------	----



Iñaki Dorronsoro

Lehendakaria

HITZAURREA

Hogei urte bete dira aurten GAINDEGIA sortu zenetik, eta 2020-2021eko mundu mailako osasun krisiak garai berrietara egokitu beharra ekarri digu guri ere. Hala, egokitzapen horretan dihardugu joan deneko bi urtean, eta, aurten, zerbait berezia egiteko eta GAINDEGIaren berpiztea profitatzeko, erronka jarri diogu geure buruari Zuzendaritza Batzorde berrian: hogei urte honetan sozioekonomiaren alorrean munduan gertakari benetan garrantzitsuak gauzatu direlarik (gero aipatuko ditudanak), bi hamarkadotako jarraipen estatistikoaren txostena lantzea. Horri ekin diogu hilabeteotan, eta txosten hori aurkituko duzu datozen orrialdeotan, irakurle. Azkeneko atalean, berriz, behako bat egin diegu behategi honen hastapenei, eta bukatzeko erreportaje labur bat prestatu dugu, GAINDEGIA berpiztuak bere buruaz hitz egin dezan, alegia, etorkizun hurbilari eusteko nolako urratsak jarri dituen abian.

Jarraian datozen orrien edukia eta testuingurua aurkeztu ondoren, utz iezadazu gure egitekoaz gogoe-ta xume bat zurekin elkarbanatzen.

Gogoan dut estrategia, enpresan zuzenean praktikatzen, hainbat lurralde erakundetako arduradunei laguntzen eta unibertsitatean irakasten aritutako garai haietaz. Ikasi genuen helburu estrategikoak lan-ildo estrategikoen bitartez lortzen direla eta lan hori era sistemiko eta dinamiko batean ingurune-faktore batzuek baldintzatuta egoten dela.

Gogoan dut bai barneko bai kanpoko informazioak duen garrantzia. Eta “adimen estrategikorako” deitzen genituen sistemak garatzen nola saiatu ginen han eta hemen.

Helburu estrategikoek —edozein dela ere erakundea— oinarrizko arrakasta-faktoreak zehazten dituzte, dagozkien adierazleekin. Lan-ildo estrategikoek, berriz, jarduera erabakigarriak zehazten dituzte bakoitzari dagozkion adierazleekin. Eta, azkenik, ingurune faktore gakoak ingurune adierazleek zehazten dituzte. Euskal Herriaren kasuan ingurune hori beste herrialdeak eta mundua izanik.

Oso garbi daukat datu batuketa ez dela informazioa eta gutxiago ezagutza. Beste modu batez esanda, informazioak eta datu kopuru multzoak ez dakar ezinbestean ezagutza. Ezagutzak gogoeta eta analisisa eskatzen baititu. Horregatik, eskura dauden datuek zentzua eta bihotza daukan sistema bat osatu behar dute. Eta bihotz hori pertsona, enpresa edo herri baten helburu estrategikoek ematen diote.



Datuak ez dira neutroak, Euskal Herriaren helburu estrategikoak —interes eta botere joko asimetrikoen adierazle izanik— neutroak ez diren bezalaxe. Ganibetak ere sukaldeko kajoian sartuta neutroak izaten dira, baina handik aterata berdin balio dute patata-arrautzopil gozo bat egiteko edo bakarren bati lepoa mozteko.

Estrategia eta adierazleak txanpon baten bi aldeak dira. Herri estrategiarik gabe, adierazle multzo handi bat neurtzeak zentzua eta lehentasunak ezkutatzeko arriskua dauka, eta adierazlerik gabe inongo zentzurik gabe noraezean ibiltzekoa. Euskal herritarrok, zoritxarrez, hiru adierazle sistema elikatzen ditugu. Adierazle sistema oso baten gabezia herri estrategia ezaren ezaugarri garbia da. Errealitate horrek herri baten zentzua ukatzen du, eta sakabanaketa egituratzen.

Duela 32 urte, 1992an, Robert Kaplanek eta David Nortonek Aginte Koadro Integral famatua proposatu zuten enpresetako datu finantzarioetatik harago joateko. Nahiko antzera, 2013an Joseph Stiglitzek eta Amartya Senek, berrogeita hamalau adierazlek osatuta, Giza Garapenaren Indizea proposatu zuten BPGaren mugak gainditzeko. Geroztik, antzeko adierazle sistemak azaltzen joan dira han eta hemen mundu guztian. GAINDEGIAK, orain dela hogeitaz urte, 29 adierazlez osatutako sistema hartu zuen, eta urte hauetan guztietan bere txostena argitaratu du.

Hogeitaz urte honetan, munduan eta Europan, gure herriari eragin dioten eta, aldi berean, aukerak eskaini dizkioten gertakari geopolitiko, ekonomiko, demografiko, teknologiko eta kultural asko izan dira.

Munduko biztanleria 5.660 milioitik 7.240 milioira handitu da, baina hazkunde tasa geldotzen joan da. Murturreko pobrezian bizi diren pertsonen kopurua gutxitu egin da, baina ezberdintasun ekonomikoa handitzen ari da. Mundua geroz eta urbanoagoa da, eta inoiz ez dute hainbeste pertsonak migratu. Aldi berean, mundua zahartzen ari da, eta gatazken ondorioz beraien herrialdeetatik alde egindako pertsonen kopurua errekorrak hausten ari da; bereziki, emakume eta haurren kasuan.

Ekonomiaren hazkunde mugagabea gurtzen duen zibilizazio honek arriskuan jarri ditu munduaren klima, baliabide eta ekosistemen orekak. Ezin da aurretik jakin teknologia digitalak eta azken olatuaren (adimen artifizialaren) abiadurak eragindako aldaketak disruptiboek norantz egingo duten.

2001eko irailaren 11ko erasoaren ondoren, 2007-2008an finantza krisi handia etorri zen. 2020an, berriz, COVID 19aren krisi ekonomiko eta soziala, eta 2022an Errusiak Ukrainaren inbasioa abiatu zuen. Azkenik, 2023an Israelen eta Palestinaren arteko gerra krudela hasi zen.

Erdigune teknoekonomikoa Asia ekialdera mugitzen joan da, Bigarren Mundu Gerraren ondorengo Estatu Batuen nagusitasunaren kaltetan. Europak, berriz, erdi periferiara joatea beste erremediorik ez duela ematen du. BRICS blokea sendotzen eta zabaltzen joan da Mendeabaldeko nagusitasunari aurre eginez.

Eszenatoki horretan, Euskal Herriaren ibilbidearen argazki deskribatzaile bat egiten saiatu gara, gogoetarako eta estrategia finkatzeko material estatistikoko koherentea eskura jarrita.

Erakunde publiko, elkarte, kutxa eta bazkide eta boluntarioen emozio eta laguntza ekonomikorik gabe ez zen posible izango. Eskerrik asko denoi.



2004
2024

**ADIERAZLE
GALERIA**



1

DEMOGRAFIA


1.1

BIZTANLERIA

Euskal Herriko biztanleria pixkanaka hazi da hogei urte honetan. 2004an, 2.953.004 biztanle ziren, eta 2024an 3.231.287 biztanlera iritsi da. Hazkunde hori herrialde gehienetan nabaritu da, bereziki Nafarroa


Garaian eta Araban; Bizkaiak, berriz, hazkunde txikiagoa izan du. Lapurdi eta Nafarroa Beherean ere gorakada izan da, eta Zuberoan biztanleria gutxitzen joan da, urtez urte.

Euskal Herriko eta herrialdeetako biztanleria bilakaera. 2004-2024 (IEH 2021)



Euskal Herriko lurraldeen artean Bizkaiak %35,9ko pisu demografikoa du, eta ondoren doaz Gipuzkoa (%22,6) eta Nafarroa Garaia (%21,0). Zuberoa da lurralderik txikiena %0,5arekin.


Euskal Herriko biztanleriaren banaketa, herrialdeka (%). (HEH 2024; IEH 2021)




Euskal Herriak, Europako estatuekin alderatuta, populazio tamaina ertaina du, 3.213.112 biztanlerekin. Euskal Herria, Europako estatuekin alderatuta, 20. tokian dago, populazio aldetik; Moldavia, Albania, Lituania eta Armenia baino handiagoa da.

Europar, Turkiak eta Alemaniak dute populaziorik handiena, eta horien atzetik Frantzia, Erresuma Batua, Italia eta Espainia daude. Euskal Herria, hiru milioi biztanlerekin, askoz txikiagoa da haiekin alderatuz.


Biztanleria kopurua. Euskal Herria eta Europako estatuak. 2023*



Europako 20 estaturik txikienak (2023*)




Europako hamar estaturik handienak (2023*)



1.2

BIZTANLERIAREN
DENTSITATEA

● Euskal Herriko biztanleria dentsitatea, udalerriak. (bizt/km²)




Dentsitaterik handiena duten udalerriak Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroa Garaiko hiri eta herrietan daude, hor kontzentratzen baitira biztanle kopuruak azalera txikiagoko lurraldeetan. Euskal Herriko dentsitaterik handieneko udalerriak dira Portugalete (14.075 biztanle/km²) eta Barañain (14.048 biztanle/km²), eta ondoren, Burlata, Atarrabia, Bilbo eta Iruñea datoz, 8.000 biztanle/km² baino dentsitate handiagoarekin. Hirigune handien inguruko beste udalerri batzuek ere dentsitate altuak dituzte; besteak beste, Santurtzik, Basaurik eta Getxok. Zenbait udalerri txikiagoetan, berriz, dentsitatea askoz txikiagoa da, 100 biztanle/km² baino gutxiagokoa, populazio sakabanatuagoa baitute. Dentsitate txikieneko hamar herriak dira: Galipentzu, Uxue, Larraine, Gorza, Orreaga, Nabaskoze, Petilla Aragoi, Ezporogi, Urraulgoiti eta Gazteluberri.

Euskal Herria, Europako hainbat eskualderekin alderatuta, dentsitate ertainekoa da, oro har, baina bertako hiri-inguruetan dentsitate handiko poloak nabarmen-tzen dira, Europako beste hiri handiekin konparatu daitezkeenak, hala nola Berlin, Brusela eta Ile-de-Franceko auzo batzuk. Euskal Herriko landa-eremuek, berriz,

antza handiagoa dute Europako beste mendialde eta landa-eremu sakabanatuagoekin. Hala, Euskal Herriak dentsitatearen eta populazioaren banaketaren aldetik kontrasteak erakusten ditu: eskualde metropolitarretan kontzentrazio handia eta landa eremuetan sakabanaketa handiagoa.

● Biztanleria dentsitatea. Euskal Herria eta Europako erregioak 2023 (bizt/km²)



1.3

BIZTANLERIAREN ADIN
EGITURA


2007an, 0-4 urteko taldeak kopuru handia du, eta 5-9 urteko taldea ere altua da; horrek jaiotza tasa altua erakusten du. Laneko adinean den biztanleria da —30-44 urteko taldea, zehazki— kopuruz handiena. 65 urtetik gorako taldeek kopuru nahiko apalak dituzte. Emakumeen biziraupen handiagoa ikus daiteke adin altuetan.

2012an, 0-9 urteko taldea hazi egin da, eta horrek jaiotza tasaren igoera txiki bat erakusten du aurreko urteen aldean. Laneko adinean den biztanlerian 40-49 urteko taldea da nagusi, eta zahartzea antzematen da, oro har. 65 urtetik gorako biztanleriak gora egin du, batez ere 70 urtetik gorako emakumeen kopuruari esker.


2017an, 0-4 urteko taldea berriro jaitsi da, eta horrek jaiotza-tasen beheranzko joera adierazten du. 40-54 urteko belaunaldiak jarraitzen du taldea nagusia izaten. Zahartze prozesuak sendotzen jarraitu du, 75 urtetik gorako taldeak igo dira, eta horrek adinekoen proportzio gero eta handiagoa erakusten du, emakumeen biziraupen altuagoarekin.

Euskal Herriko adin-piramidea, sexuaren arabera. 2007-2022


EH, 2007




EH, 2012



EH, 2017



EH, 2022



2022an, 0-4 urteko taldea oraindik eta gehiago txikitu egin da. Laneko adinean den biztanleria gutxitzen hasi da, bereziki 30-44 urte bitarteko biztanleriak egin du behera. 65 urtetik gorako taldeak hazi egin dira berriro ere, eta 85 urtetik gorako emakumeen kopurua handia da, Euskal Herriko biztanleriaren zahartze prozesuaren adierazle.


Beraz, Euskal Herriko adin-piramideetan argi ikusten da jaiotza tasa beherantz doala, eta, aldi berean, biztanleria zahartzen ari dela. 2007tik 2022ra, haur kopurua murriztu egin da, eta laneko adinean den populazioak maximoa jo du 2012an; gero beherantzko joera erakutsi du. Zahartze-prozesua oso nabarmena da.

Euskal Herriko herrialdeetan, guztietan adinak gora egin du batez beste, eta zahartze nabarmena erakus-


ten du. Zuberoak batez beste adin handieneko taldea du, 47,5 urterekin 2022an, eta Lapurdik igoera nabarmena izan du: 2007an alde handiz gazteena bazen, 2022an bigarren zaharrena izatera pasa da, Zuberoaren atzetik (37,4tik 46,4ra). Nafarroa Garaia eta Araba dira batez beste adin txikiena dutenak, 43,4 eta 45,0 urte, hurrenez hurren.

Beste herrialde batzuekin konparatuta, Europan adin batezbestekoari dagokionez, abaniko osoaren erakusle izan daitezke Espainia, Alemania eta Italia, haien antzeko mailan baitago Euskal Herria batez beste; herrialde horiek guztiek ere adin handitze nabarmena erakutsi dute. Azerbaijanek du Europan batez besteko adinik txikiena, 2022an 34,3 urtekoa, nahiz eta hura ere zahartzen ari den.

Batez besteko adina herrialdeka, 2007-2022




Batez besteko adina, Euskal Herria eta Europako Estatu hautatuak, 2007-2022




Gaztetxoenen bilakaerari erreparatzen badiogu, 0-14 urtekoei, mendearen lehen hamarraldian igoera izan ondoren, beherakada orokorra gertatu da Euskal Herrian. 2022an, Bizkaian aurkitzen da 0-14 urte artekoen proportziorik txikiena, %12,5, eta Nafarroa Beherean altuena, %16,4.

14 urte azpiko biztanleria proportzioa (%), 2002-2022




EU27an, haurren ehunekoetan beherakada izan da hoge urtez. Hala ere, Euskal Herria egungo %13,6rekin Europaren azpitik dago batez beste.

14 urtetik beherako biztanleria %. Euskal Herria eta Europako erregioak 2023




65 urte eta gehiagokoen igoera nabarmena ikus daiteke. Euskal Herriko probintzia guztietan adinekoen ehunekoak igo egin da, eta 2022an 22,8ra iritsi da Euskal Herrian bere osotasunean. Zuberora da proportzio handiena duena (%29,2).

65 urtetik gorako biztanleriaren %. Euskal Herria eta europar erregioak 2023




65 urtetik gorako biztanleria proportzioa (%), 2002-2022




Joera hori, gaztetxoena bere horretan gelditzea edo gutxitzea eta nagusia handitzea, EU27renarekin bat dator. Hala, Europako erregio gehienetan, 0-14 urtekoen proportzioak pixkatxo bat handitu eta 3 puntu arte jaitsi dira, eskualdearen arabera. 65 urtetik gorakoak, ordea, puntu bat eta bost artean igo dira.

● 14 urtetik beherako biztanleria %aren aldaketa. Euskal Herria eta Europako erregioak 2014-2023



● 65 urtetik gorako biztanleria %aren aldaketa. Euskal Herria eta Europako erregioak 2014-2023




1.4

MIGRAZIOAK

2022ko datuen arabera, euskal herritar guztien artean Euskal Herrian jaio diren euskal herritarren kopurua 2.254.764 da, biztanleriaren %70,6. Euskal Herritik kanpo, euskal herritar asko jaio dira, 938.274 lagun inguru, eta horrek biztanleriaren %29,1 suposatzen du.

Euskal Herritik kanpo jaio diren euskal herritarrek banatuz gero; gehienak Espainian (437.106) eta Frantzian (126.387) jaio dira. Beste herrialdeetan ere euskal herritar ugari jaio dira, hala nola Marokon (50.011), Kolonbian (40.292), Ekuadorren (24.069) eta Errumanian (21.821).


● Euskal Herriko biztanleria, jaiolekuaren arabera. 2022



Euskal Herriko jaiotza kopurua
jaitsi egin bada ere, biztanlegoak
gora egin du azken hoge urteetan.



● Euskal Herriko biztanleria, Euskal Herritik kanpo jaioa. 2022




Nazionalitateari erreparatzen badiogu, ordea, %8,7ra jaisten da espainiar edo frantziar nazionalitatea aitortuta ez duten euskal herritarrek.

Frantziar eta espainiar nazionalitatea

ez daukaten atzeritarrek %8,7 dira


Euskal Herrian.

● Euskal Herriko biztanleria, aitortutako nazionalitatearen arabera. 2022



Europa mailako datuekin alderatuta, Euskal Herria posizio ertainean legoke, Alemaniatik oso urrun. Alemanian momentu honetan bertako herritarren ia %26k atzerritar kontsiderazioa du. Ondoren Frantzia dator %14,1ekin; Espainiak %12,9 eta Italiak %10,1. Euskal Herria horien atzetik legoke, bosgarren tokian.

● Euskal Herriko eta estatuetaiko biztanleria atzerritartzat hartuak (%). 2022



1.5 JAIOTZAK

Euskal Herriko 2000-2022 urteen arteko jaiotza tasaren bilakaera bere horretan aztertuta, oro har, murriztu egin da denbora honetan. 2000n, tasa 8,7 zen mila biztanleko, baina 2022an, 6,6ra jaitsi da.


Herrialdeka, Nafarroa Garaiak agertu du tasarik handiena azken urte gehienetan, eta Bizkaia eta Zuberoan daude tasarik txikiak. Edozein moduz, joera guztietan antzekoa da.

Europako eskualdeen arteko konparazioa eginez gero, 2022ko datuekin, Euskal Herria (6,6) eta bere inguruko beste eskualde batzuk Europako batezbestekoaren azpitik daude (EU27, 8,7); inguruko eskualde batzuek, berriz (adibidez, Brusela-Hiriburua eskualdea, 12,1 edo Ile-de-France, 13,2), askoz tasa handiagoak dituzte.


Espainiako eskualde gehienek jaiotza tasa txikiak dituzte (adibidez, Galiziak, 5,4 eta Asturiasek, 4,7).

Europako beste eskualde batzuek jaiotza tasa nahiko handiak dituzte; esaterako, Mayotten (36,0), Guyanen (26,6) eta Şanlıurfa eta Diyarbakır eskualdean (24,0), Turkiako ipar-mendebaldean.

Jaiotzak mila biztanleko. Euskal Herria eta herrialdeak eta EU27. 2000-2022



Jaiotzak 1.000 biztanleko. Euskal Herria eta Europako erregioak. 2022




1.6

HERIOTZAK


Azken urteetako datuek erakusten dute Euskal Herriko heriotza tasak goranzko joera izan duela, eta COVID-19 pandemiak 2020an are igoera esanguratsuagoa eragin bazuen ere, oro har, aurreko joera horrek jarraitu du 2022an. Euskal Herriko batezbestekoa mila biztanleko 10,7koa izan zen 2022an, eta lurraldez lurralde, tasarik

handienak Ipar Euskal Herrian erregistratu ziren (Nafarroa Beherean %15,4, Zuberoan %14,3 eta Lapurdin %12,2), zahartze demografikoa dela eta. EU27an ere igo eginda heriotza tasa batez beste, 2000ko 10,0etik 2022ko 11,6ra, eta gehienbat populazioaren zahartzeak eta COVID-19ak eragindako gorakadak azaldu dezakete hori. Hala ere, Europako eskualde batzuetan askoz ere heriotza tasa handiagoak daude; besteak beste, Bulgariako Severozapaden (22,6) eta Alemaniako Saxonia-Anhalt (17,2) eskualdeetan, horietan demografia zaharragoa baita.

Heriotzak 1.000 biztanleko. Euskal Herria eta Europako erregioak. 2022



Heriotzak mila biztanleko. Euskal Herria eta herrialdeak eta EU27. 2000-2022



Euskal Herriko biztanleria oro har handitu egin da hogeitaz urte hauetan; batez ere, Hego Euskal Herriko herrialdeetan. Bizkaia da biztanle gehien dituen lurraldea, eta ondoren Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia. Europako testuinguruan, Euskal Herria estatu txiki eta ertainen artean kokatzen da, tamaina handiko estatuetatik urrun.

Euskal Herria, Europako hainbat eskualderekin alderatuta, dentsitate ertainekoa da oro har, baina bertako hiri-inguruetan dentsitate handiko poloak nabarmentzen dira, Europako beste hiri handiekin konparatu daitezkeenak, hala nola Berlin, Brusela edo Ile-de-Franceko auzo batzuk. Aldiz, Euskal Herriko landa-eremuak antza handiagoa dute Europako beste mendialde eta landa-eremu sakabanatuagoekin. Hala, Euskal Herriak dentsitatearen eta populazioaren banaketaren aldetik kontrasteak erakusten ditu, eskualde metropolitarrak kontzentrazio handia, eta landa eremuetan, berriz, sakabanaketa handiagoa dago.

Euskal Herriko adin-piramideetan argi ikusten da jaiotza tasa beherantz doala, eta, aldi berean, biztanleria zahartzen ari dela. 2007tik 2022ra, haur kopurua murriztu egin da, eta laneko adinean den populazioak maximoa jo du 2012an; gero, berriz, beheranzko joera hartu du. Zahartze-prozesua oso nabarmena da, eta batez ere emakumeen biziraupen altuak adineko taldeetan dentsitate handia sortzen du, Euskal Herriko adin-piramidea pixkanaka zabaltzen delarik adin handiagoko taldeen alde.

Joera horiek, gaztetxoek bere horretan irautea eta nagusia handitzea, EU27renarekin bat dator. Hala, Europako erregio gehienetan 0-14 urte artekoen proportzioa pixkatxo bat handitu eta 3 puntu arte jaitsi dira, eskualdearen arabera. 65 urtetik gorakoen artean, ordea, puntu bat eta bost artean igo da.

Azken urteetako jaiotza tasaren datuek Euskal Herrian eta Europako beste eskualdeetan beherakada orokor bat islatzen dute, nahiz eta eskualde batzuetan aldea nabaria den. Euskal Herriko jaiotza tasa 2000. urtean mila biztanleko 8,7 izan zen, baina 2022rako 6,6raino jaitsi da. Europako beste eskualde batzuekin alderatuz, jaiotza tasa txikia da, Bruselako 12,1, Islandiako 11,7 eta Ile-de-Franceko 13,2 tasekin aldean, adibidez. Hala ere, eskualde askotan ere beherakada izan da; adibidez, EU27, batez beste, jaitsi egin da 2000ko 10,5etik 2022ko 8,7ra. Kontrastea dago Turkiako edo Frantziako eskualdeetan, jaiotza tasa altuagoekin, eta Espainiako zenbait eskualdetan, non tasak 6tik behera baitaude, hala nola Galizian (5,4) eta Asturiasen (4,7). Oro har, jaiotza tasa txikiagorako joera orokorra ikusten da Europa osoan, eta horrek zahartze demografikoa eta ugalkortasun mailen jaitsiera islatzen ditu.

Azken urteetako datuek erakusten dute Euskal Herriko heriotza tasa goranzko joera izan duela, eta COVID-19 pandemiak 2020an are igoera esanguratsuagoa eragin bazuen ere, oro har, joera horrek aurreko bidetik jarraitu du 2022an. Euskal Herriko batezbestekoa mila biztanleko 10,7koa izan zen 2022an, eta lurraldez lurralde, tasa altuenak Ipar Euskal Herrian erregistratu ziren (Nafarroa Beherean %15,4, Zuberoan %14,3 eta Lapurdin %12,2). Joera hori EU27koaren antzekoa da, baina Euskal Herriak egun EU27ko baino tasa txikiagoa du.

2022ko datuen arabera, Euskal Herriko biztanleen %70,6 bertan jaio da (2.254.764 pertsona), eta %29,1 Euskal Herrikan kanpo, batez ere Espainian (437.106) eta Frantzian (126.387). Beste herrialde batzuetan ere euskal herritar ugari jaio dira, hala nola Marokon, Kolonbian eta Ekuadorren. Espainiar edo frantziar nazionalitateak ez duten euskal herritarrak %8,7 dira. Europa mailan, Euskal Herria erdi mailako posizioan dago atzeritar proportzioari dagokionez, Alemaniaren (%26) eta Frantziaren (%14,1) atzetik.



2


—
EKONOMIA

2.1

BPG: URTE ARTEKO
HAZKUNDEA

2000. urtean, Euskal Herriko barne produktu gordina (BPG) 57.629 milioi eurokoa zen, eta 2022rako 112.811 milioi eurora igo zen. Garai honetan, biztanleko BPGa-ren hazkunde progresiboa egon da; batez ere, 2008ra arte. Eta gero, krisiaren ondorioz, murrizketak izan dira; adibidez, 2009an, %3,8ko jaitsiera. Pandemiaren urteetan (2020), berriro jaitsi da BPGa, baina 2021ean, berreskurapen azkarra izan du, %8,5eko hazkundearekin, eta 2022an %9,4koa izan da, aurreko hamarkadan baino hazkunde handiagoa.

● Uneko prezioak (milioi €), Urte arteko BPG hazkunde tasa, BPG biztanleko. Euskal Herria 2000-2022




2.2

BPGa BIZTANLEKO


Euskal Herriak 35.309 euroko BPGa izan du biztanleko 2022an, inguruko eskualde eta estatuen parekoa. Europako eskualderik aberatsenak, hala nola Hovedstaden (Danimarka) 90.400 euro eta Brusela-Hiriburua eskualdeak 77.800 euro, beste batzuen artean, 70.000 eurotik gorako BPGa izan dute biztanleko. Hala ere, Europan badaude biztanleko BPG txikiagoak dituzten eskualdeak ere; adibidez, Turkiako eta Balkanetako hainbat eskualde (3.700 eta 8.000 euro artean), baita Ekialdeko Europako eta Hegoaldeko beste eskualde batzuetan ere, 10.000 eurotik beherako kopuruekin.

Gure BPGa biztanleko 35.309 €koa da,
Danimarkako Hovedstaden erregiokoa
90.400 €koa.

● BPG biztanleko. Euskal Herria eta Europako Estatuak 2022



● Balio erantsi gordinaren egitura, jarduera adarren arabera. (mila €). Euskal Herria 2000-2022




2.3

BALIO ERANTSIAREN EGITURA

Bost urteko tartean, Euskal Herrian, 2016 eta 2021 bitartean, aldatu egin da jarduera-adar ezberdinen ekarpena BEGan:

- Industria sektorea, 2016an %27,35eko ekarpena zuena 2021ean, %26,12ra jaitsi da, nahiz eta oraindik garrantzitsua den.
- Zerbitzuen sektoreak igoera esanguratsua izan du, %63,19tik %65,33ra, eta Euskal Herriko ekonomia-aren gehiengo indartu du.
- Eraikuntza sektoreak %6,04tik %5,58ra egin du behera, eta nekazaritzak, berriz, nahiko egonkor jarraitzen du %1,6 inguruan.

● Industriaren balio erantsia (Milioi €)
Euskal Herrian eta europar erregioetan, 2021

2021ean, Euskal Herrian industriaren balio erantsia 21.469,55 milioi eurokoa izan da, eta hori BEGren %26,12 da. Europan, industria-ekarpeneko zenbait eskualderen artean konparatuta:


- Lombardia da industriako balio erantsi handiena duen eskualdea, 88.484,7 milioi euroekin.
- Stuttgartek, Bavaria Garaiak eta Ile-de-Francek ere 50.000 milioi eurotik gora dituzte balio erantsian.
- Atzetik daude Finlandiako Aland eta Greziako Joniako Uharteak, eta azken lekuetan Espainiako Ceuta eta Melilla, 150 milioi eurotik behera.

Bilakaerari erreparatuta, industriaren balio erantsia nabarmen jaitsi da Frantziako eskualde nahikotxotan; besteak beste, Franche-Comten, Pikardia, Nord-Pas-de-Calaisen, Borgoinan, Limousinen, Lorrenan eta Champagne-Ardenneen.

Hazkunde nabarmenak izan dira, ordea, Europako Ekialdean nagusiki; Errumaniako eta Bulgariako eskualde asko kokatzen dira hor.

Euskal Herria hazkunde apalekoen multzoan egongo litzateke, Alemaniako, Herbehereetako eta Espainiako zenbait eskualde bezala.

● **Industriaren balio erantsia (% aldaketa, 2000. urtea oinarri)**
Euskal Herrian eta Europako erregioetan, aldaketa 2000-2021



Euskal industria,
ekonomiaren %26,12 da,
zerbitzuak %65,33.


2.4

ONDASUN ETA ZERBITZUEN
ESPORTAZIOAK


Euskal Herriko esportazioak azken urteetan hazten joan da. 2016an, 49 mila milioi eurora ez zen iristen eta bi urte beranduago 55 mila milioi gainditu ditu. Zenbateko horrek beherakada nabarmena izan du 2020an, COVID-19aren ondorioz. Pandemiaren ostean, susperraldia nabarmena izan da, eta 2022an 70 mila milioiak gainditu ditu. 2023an, berriz, atzera egin du apur bat.

Esportazioen norakoari eta banaketari dagokienez, Espainia izan da merkatu nagusia eta egonkorrena urte guztietan; Euskal Herriko esportazio guztien %37-39 artean hartu ditu. Espainiarekin batera, Frantzia eta Alemania izan dira bigarren eta hirugarren herrialde nagusiak, bakoitza %10 inguruko kuotarekin, eta horien kasuan ere nahiko egonkorak urte horietan guztietan. Ameriketako Estatu Batuen pisua ere nabarmentzekoa da, azken urteetan %4-5 inguruan, baina gorabeheratsuagoa izan da. Beste herrialde garrantzitsuen artean daude Italia, Erresuma Batua eta Portugal, guztiek %2-4 arteko portzentajeekin.

● Euskal Herriko esportazioak. Bolumena (milioi €). 2016-2023



● Euskal Herriko esportazioak, nora (milioi €). 2023



● Euskal Herriko esportazioak, nora. Bolumena %. 2016-2023




2.5

ONDASUN ETA ZERBITZUEN IMPORTAZIOAK

Euskal Herriko inportazioen bolumena nabarmen aldatu da 2016 eta 2023 urteen artean, joera orokorra goranzkoa izan delarik. 2016an, inportazioen bolumena 40.262 milioi eurokoa izan zen, eta 2023an 65.452 milioi eurora iritsi da; hau da, %62ko igoera zazpi urteko epean. Pandemiaren ondorioz, 2020an inportazioen bolumena


jaitsi egin da, 42.955 milioi eurora; hala ere, 2021etik aurrera, berriz ere gora egin dute, 2022an 69.038 milioi euroko gailurra lortu arte. 2023an, bolumena zertxobait jaitsi den arren, pandemia-aurreko urteekin alderatuta, askoz ere handiagoa da.

● Euskal Herriko inportazioak. Bolumena (Milioi €). 2016-2023



Inportazioen jatorria aztertuta, Espainia izan da Euskal Herriko hornitzaile nagusia, 2022an guztizkoaren %46,3 eta 2023an %48,3 hartu baititu. Alemania (%8,5), Frantzia (%4,5), eta Txina (%4,1) dira hurrengo herrialderik garrantzitsuenak. Beste herrialde batzuek ere —besteak beste Ameriketako Estatu Batuek (%2,9) eta Italiak (%2,7)— nolabaiteko garrantzia dute, nahiz eta euren portzentajeak askoz txikiagoak diren.

● Euskal Herrira inportazioak nondik (milioi €). 2022




Inportazioen jatorriari erreparatuta,
Espainia da Euskal Herriko hornitzaile
nagusia, guztizkoaren %48,3a hartuz.

2016tik 2023ra, inportazioen jatorria egonkorra izan da gehienbat, baina herrialde batzuen portzentajeek al-daketa txikiak izan dituzte. Espainiak beti izan du lehen postua, urtez urte, %45-50 inguruko kuotarekin. Alemaniaren eta Frantziaren portzentajeek gutxi gorabehera egonkor jarraitu dute, eta Txinak, urtez urte, igoera txi-

kiak izan ditu, %3,2tik %4,1era igarota eta Frantziatik gertu kokatuta. Ameriketako Estatu Batuen parte-hartzea ere handitu egin da, batez ere 2021etik aurrera, 2022an %3,3ra iritsita. Beste herrialde batzuen kuotak ere handituz joan dira azken urteetan (adibidez, Herbehereena eta Poloniarena).


● Eukal Herriko inportazioak, nondik. Bolumena (milioi €). 2016-2023



2.6

MERKATARITZA-BALANTZA

● Euskal Herriko merkataritza saldoa (milioi €). 2016-2023



Merkataritza-balantzak, esportazioen eta inportazioen arteko desberdintasuna erakusten duen adierazleak, joera murritzalea izan du azken urteetan, nahiz eta esportazioak inportazioak baino handiagoak izan diren aldi osoan. 2016an, merkataritza-balantza positiboa izan zen, 8.589 milioi euroko superabitarekin. Hala ere, 2021ean beherakada nabarmena izan zuen, 4.338 milioi euroko superabitera jaitsita. 2022an, superabitak bere puntu apalena lortu zuen, 1.863 milioi euroekin; hots, esportazioek inportazioak oso gutxi gainditu zituzten urte horretan. Hori azaltzeko, 2021etik aurrerako dinamika ikusi behar da, non inportazioek zein esportazioek susperraldi handia izan duten, baina inportazioak esportazioak baino azkarrago handitu dira, eta horrek balantzaren oreka okertu du. 2023an, aurreko urteetan bezala, esportazioek inportazioak gainditu dituzte berri ere, baina tartea handitu da. Beraz, egoera hobetu egin da pixka bat, eta superabita 4.240 milioi eurora igo da.


2.7

BERRIKUNTZA JARDUERAK


Europar, eskualde bakoitzak bere ezaugarri ekonomiko eta teknologiko propioak ditu, eta horiek inbertsio mailaren eta teknologiko maila altuko enpleguaren arabera bereizten dituzte ikerketa eta garapena (I+G). Euskal Herrian, esaterako, BPGaren %2,2 I+Gra bideratu da 2021ean, EU27ko batezbestekoaren oso maila antzekoan (%2,3).

Europako beste eskualde batzuk, hala nola Bruselako (Belgika) eta Stuttgarteko (Alemania) eskualdeak, nabarmendu egiten dira I+Gko eta teknologiko enplegu handiengatik. Bruselan, %2,5ko inbertsioa egiten dute I+Gn, eta teknologia maila altuko enplegua %7ra iristen da, eta Stuttgartek nabarmen gaitzen du Europaren batezbestekoa, %6,8ko I+G inbertsioarekin eta %6,7ko teknologia maila altuko enpleguarekin. Alemaniako Bavaria Garaia eta Frantziako Ile-de-France ere lehiakorrak dira teknologia maila altuko enpleguetan, %8,2 eta %9,4, hurrenez hurren.


● Teknologia maila handiko jarduerak (enpleguaren %) Euskal Herria eta Europako erregioak. 2023




● I+G Inbertsioa (BPGaren %). Euskal Herria eta Europako erregioak. 2021



● Teknologia aurreratuko sektoreak. Guztizko enpleguaren ehunekoa. Euskal Herria eta EU27 2012-2023



● I+G Inbertsioa (BPGaren %). Euskal Herria eta EU27. 2000-2021



Europa Ekialdean, Praga eta Budapest nabarmen-tzen dira teknologia maila altuko enpleguetan. Pragak %2,8ko I+G inbertsioa du, eta teknologiako enplegua %12,7ra iristen da. Eskandinaviako eskualdeek ere balio altuak dituzte, hala nola Stockholm (%11,1) eta Helsinki (%10,9).

Euskal Herriak I+Gn egindako inbertsioa, BPGaren %etan zenbatuta, 20 urte hauetan EU27rekiko zuen tar-tea murriztu du. 2007-2012 tartean Euskal Herria gaine-tik ere egon zen. Ondoren, atzean geratu da berriz, nahiz eta 2000an baino hurbilago mantentzen den orain. Tek-nologia aurreratuko sektoreetan guztizko enpleguaren ehunekoa erreparatuta ordea, Euskal Herria EU27ko batezbestekotik urrutiago dago. Hemen ere tarte-a txi-kitzen joan da, baina 2023an 1,5 puntu txikiagoa zen oraindik Euskal Herriko teknologia aurreratuko enple-guaren ehunekoa (2013 eta 2019 tartean gutxienez 2,6 puntuko aldea izan da urtero UE27ren alde).

2.8


LANAREN PRODUKTIBITATEA

Datu hauek lanaren produktibitate nominala adierazten dute eurotan urtez urte. Euskal Herria eta EU27ko herrialdeak konparatzeko aukera ematen dute. Produktibitatearen eboluzioa 2000 eta 2022 artean Euskal Herrian eta EU27n produktu nominalak hazkundera erakusten du, nahiz eta gorabehera batzuk dauden; bereziki,


2008ko krisiak eta 2020ko COVID-19 pandemiak eragindako aldaketak ikus daitezke horietan.

2023an, Euskal Herriaren produktibitatea EU27ren batezbestekotik gertu dago (75.682 € eta 74.400 €, hurrenez hurren). EU27ko zenbait eskualdeak produktibitate altuagoa edo baxuagoa erakusten dute; Belgika, Danimarka eta Luxenburgoren kasuan, EU27ko batezbestekoa nabarmen gaitzen dute; beste batzuek, berriz, adibidez, Bulgariako eta Errumaniako zenbait eskualde, batezbestekotik nabarmen azpitik daude.

● Lanaren produktibitate nominala (€), Euskal Herria eta EU27. 2000-2023




● Lanaren produktibitate nominala (€). Euskal Herria eta Europako erregioak. 2023




Laneko orduko produktibitate erreala ekonomia bateko langileen produktibitatea neurtzeko erabilitako adierazlea da, eta garrantzitsua da herrialde edo eskualde bateko ekonomiaren indarra eta lehiakortasuna ulertzeko. Euskal Herrian eta EU27n laneko ordu bakoitzeko produktibitate erreala aztertzeko, 2015. urteko datua erreferentzia bezala hartzen da eta hortik atzera edo aurrera aldaketa ehunekoetan neurtu. Euskal Herria eta Europar Batasuneko 27 estatu (EU27) aztertuz, 2000 eta 2022 urteen artean, ikusten da nola eboluzionatu duen produktibitateak eta zein den egoera konparatiboa.

Euskal Herrian, laneko orduko produktibitate erreala 81,4 puntuan zegoen 2000. urtean, eta 2022. urterako 105,0 puntura iritsi da. Hala, %29,3ko igoera nabarmena izan du denbora tarte horretan. Aldiz, EU27ko batez besteko produktibitatea 84,4 puntutik 106,4 puntura igaro da (%25,9ko igoera). Horrek erakusten du Europa mailan ere hazkunde sendoa izan dela, baina Euskal Herria pixka bat azkarrago hazi da, eta 2022an indizeak adierazten du Euskal Herriko produktibitatea Europako batezbestekora hurbiltzen ari dela.

● Lanaren orduko produktibitate erreala (2015=100), Euskal Herria eta EU27. 2000-2022



● Lanaren orduko produktibitate erreala (Index 2015) Euskal Herria eta Europako erregioak. 2022



2022ko datuek agerian uzten dute Euskal Herriak, Europa osoan, leku on bat duela. Europako eskualdeen artean, zenbait eskualde nabarmendu dira produktibitatearen bilakaera ona izan dutelako. Adibidez, Belgikak oso produktibitate handia du, eta bilakaera ona izan du, eta Bulgariako zenbait eskualdek produktibitate indize handiak lortu dituzte, 2022an oso emaitza onak izanik (115-120 artean). Alemaniako eskualde batzuek ere, bereziki ekialdekoek, produktu gehiago sortzen dute orduko, eta hazkunde nabarmena erakusten dute.

Aldiz, beste eskualde batzuk bilakaera txarra izan dute; Grezia eta Espainia nabarmentzen dira. Greziako eskualde gehienek produktibitate txikia dute, eta bilakaera motelagoa izan dute (100etik behera egin dute). Espainiako zenbait eskualde ere batezbestekoaren azpitik geratu dira, eta produktibitatea hobetzeko beharra dute.

Euskal Herriko datuek adierazten dute, Europako batezbestekoaren azpitik egon arren, inbertsio finkoak bere horretan daudela, eta horrek eragin handia izan dezake hazkunde ekonomikoan.


Euskal Herria, Europako beste eskualdeekin alderatuta, erditik behera dago. Goiko posizioetan topatzen ditugu Europako Ipar-ekialdeko eskualdeak, Hungaria, Errumania eta Alemania, baita Txekia eta Herbehereetako zenbait eskualde ere (Hegoaldeko Transdanubia, Bukarest-Ilfov, Iparraldeko Lautada Handia, Zeeland, Erdialdeko Bohemia eta Treveris), 30etik gorako balioekin. Behekoetan, berriz, Grezia eta Ekialdeko eskualdeak topatzen ditugu, 15etik gertu Ipar-mendebaldeko Bulgaria, Erdialdeko Mazedonia, Silesia, Severozapaden eta Atika.

2.9


ENPRESA INBERTSIOA

Kapital Finkoaren Eraketa Gordinak (KFEG) Euskal Herrian, 2012tik 2021era, %19,3tik %19,1era jaitsi da. Horrek adierazten du azken hamarkadan, funtsezko inbertsioak eta baliabideak nola eratu diren. 2015ean %17,7ra iritsi zen puntu baxuena, eta ondoren, pixkanaka hazi egin zen, 2021ean %19,1eko indizea lortuta.

● Kapital finkoaren eraketa gordinak (KFEG) (BPGaren %). Euskal Herria eta EU27 2012-2021



● Kapital finkoaren eraketa gordinak (KFEG) (BPGaren %). Euskal Herria eta Europako erregioak. 2021



● Kapital finkoaren eraketa gordinak (KFEG) (BPGaren %). Euskal Herria, EU27 eta Europako estatuak. 2021



Europako estatuekin alderatuta, Euskal Herriak %19,1ekoa izanik, behe aldean aurkitzen da. Alemania-ren %21,2ko KFEG indizearen, Frantziaren %23,5aren edo Suediaren %25,1aren azpitik. Greziak, berriz, %13,8ko indizea du, inbertsio finko txikiena European.

Euskal Herriko produktibitatea

Europako bataz bestekoaren azpitik

dago, baina hurbiltzen ari da.



2.10


LANSARIAK

Euskal Herriko langile bakoitzeko soldata 2000. urtean 26.279 euro inguruan zegoen, eta urte hauetan etengabe igo da. 2000-2022 tartean, soldata 14.650 euro igo da (2000. urteko 26.279 eurotik 2022. urteko 40.929 eurora). Europar Batasuneko (EU27) batezbestekotik, 40.600 eurotik, oso gertu. Hau da, Euskal Herria eta Europar Batasuna hazten joan dira 20 urte pasa honetan, eta Euskal


Herriak, ozta-ozta bada ere, EU27ko batezbestekotik apur bat gorago mantentzea lortu du.

2022. urtea, Euskal Herria Europako beste hainbat erregiorekin alderatzen badugu, ikusten dugu Euskal Herriko soldata altuagoa dela Espainiako hainbat eremu baino, adibidez, baina Luxenburgoko, Belgika, Alemania edo Frantziako zenbait erregiotakoa baino baxuagoa da, hala nola Luxenburgoko, Brusela, Flandriako Brabanteko, Valoniako Brabanteko eta Hovedstaden, guztiak 68.800 eurotik gora, Euskal Herriko 40.929 euroetatik urrun.


● Langile bakoitzeko soldata (€). Euskal Herria eta EU27. 2000-2022



● Langile bakoitzeko soldata (€). Euskal Herria eta Europako erregioak. 2022



● Soldata lan orduko (€). Euskal Herria eta EU27. 2000-2021



Langile bakoitzeko soldatari dagokionez, lan orduko neurrirako, joera berdinak antzematen dira. 2000. urtean 15,9 euro ingurukoa zen Euskal Herrian, eta 2021ean 26,25 eurokoa izan zen. Horrek erakusten du soldata horren hazkundera, 10,35 euro igo baita 21 urtean. EU27ko batezbestekoa-rekin alderatuz, Euskal Herriko lan orduko soldata (25,3 euro) gertu dago, baina oraindik pixka bat altuagoa da.


Europako eskualdeekin alderatuta —Luxenburgoko 51,7 edo Bruselako 50,1etik Errumaniako eskualdeetako 5,5-5,8raino doaz—, Euskal Herria taularen erditik behera dago nabarmen.

2.11


HERRITARREN ERRENTA

Euskal Herriko errenta erabilgarria 2000. urtean 12.375 eurokoa zen, eta urtez urte hazten joan da, 2021. urtean 19.584 eurora iritsita, 7.209 euroko hazkundera. Horrek, Euskal Herriak errenta erabilgarria hobetzen joan dela adierazten du. Europar Batasuneko (EU27) errenta erabilgarria 10.700 eurotik hasi zen 2000. urtean, eta 2021ean 17.800 eurokoa izan da, 7.100 euroko igoera. 2021ean 1.784 euroko aldea dago Euskal Herriaren eta EU27ko errenta erabilgarrien artean.


● Soldata lan orduko (€). Euskal Herria eta Europako erregioak. 2022



● Errenta erabilgarria (€). Euskal Herria eta EU27. 2000-2021



● Errenta erabilgarria (€). Euskal Herria eta Europako erregioak. 2021



Euskal Herriko errenta erabilgarria, 2021ean 19.584 eurokoa izanda, Europar Batasuneko (EU27) batez besteko errenta erabilgarriaren (17.800 euro) gainetik dago. Hala ere, Europako hainbat erregiorekin konparatuta, batez ere iparraldekoekin eta mendebaldekoekin, errenta erabilgarria handixeagoa dute. Adibidez, Luxenburgoren, 2021ean, errenta erabilgarria 36.700 eurokoa izan da, eta Europako mailarik altuena du. Suedia, bizitzako kalitate altuagatik ezaguna, 26.000 euro inguruko errenta erabilgarria du. Alemania, erreferentziazko ekonomia gisa, 2021ean, batez besteko errenta erabilgarria 28.000

euro ingurukoa izan da. Eta Danimarka, estatu ongizate sendoa duena, 27.000 euro inguruko errenta izan du.

Beraz, Euskal Herriak errenta erabilgarria handia du, baina Luxenburgoren eta Ipar Europaren kasuan —hala nola Suedian— errenta altuak are handiagoak dira. Iparraldeko herrialdeek, oro har, errenta erabilgarria handia dute.

Bestalde, Ekialdeko Europako herrialde askok —adibidez, Bulgariak (2021ean 4.500 euro) eta Errumaniak (7.000 euro inguru)— errenta erabilgarria askoz txikiagoa dute.

Euskal Herriko ekonomiaren bilakaera positiboa izan da oro har, biztanleko BPGa eta BEGa hazten joan direlako, nahiz eta munduko krisi eta pandemiak eragina izan duten 2009 eta 2020 urteetan. 2022an, Euskal Herriko BPG biztanleko 35.309 eurokoa izan zen, Europako batezbestekoarekin bat datorrena. Hala ere, Europan alde handiak daude eskualde aberatsen eta garapen txikiagoa dutenen artean, 3.700 eta 90.400 euro bitarteko BPGa biztanleko.

Euskal Herrian, zerbitzuen sektorea nagusi da balio erantsi gordinaren aldetik, sektore horrek %65 inguru baitu. Industriaren ekarpena apur bat murriztu da azken urteotan, baina oraindik ere Euskal Herriko ekonomiaren zati garrantzitsua izaten jarraitzen du, Europako beste eskualde industrializatu batzuekin alderatuta ere.

2000tik 2021era, Europako hainbat eskualdek industriaren balio erantsian aldaketa handiak izan dituzte, batzuetan jaitsiera handiak eta beste batzuetan hazkunde azkarrak. Euskal Herrian, %45,2ko hazkundera izan du industriak, eskualde industrializatuek erakutsi duten goranzko joera apal bertsua.

Esportazio bolumen eta norakoen bilakaerak Euskal Herriko esportazioen egonkortasuna eta pandemiak ekarritako gorabeherak islatzen ditu, bai eta merkatu nagusiak mantendu izana ere, Espainia, Frantzia, eta Alemania nagusi baitira.

Esportazioetan bezala, inportazioetan ere Espainia nagusi da Euskal Herrian, baina Txina eta Ameriketako Estatu Batuen parte-hartzea areagotzen ari da. Bestalde, pandemiaren ondorioek eragin nabarmena izan dute 2020an, baina hurrengo urteetan suspertze azkar bat izan da, batez ere 2021ean eta 2022an.

Euskal Herriko merkataritza-balantzak joera ahuldu bat izan du azken urteetan, batez ere inportazioen gorakada handiaren ondorioz. Hala ere, esportazioek etengabeko hazkundera erakutsi dute, eta 2023an balantzaren egoera pixka bat hobetu da. Datu horiek adierazten dute Euskal Herriko ekonomia gero eta mendekoagoa dela kanpoko merkataritzarekiko.

Euskal Herria Europako batezbestekoarekin parekatzen da I+G inbertsioan, baina zenbait eskualdek erritmo azkarragoa daramate, teknologia maila altuko enplegua sortzeko orduan.

Europako eskualdeen artean, produktibitate bilakaerari dagokionez, bilakaera ona izan dutenek —hala nola Belgika, Bulgaria eta Alemaniako zenbait eskualde— produktibitate indize altuak lortu dituzte, eta Euskal Herriak ere bilakaera positiboa izan du, haien atzetik joan bada ere. Beste eskualde batzuek —esaterako, Greziako eta Espainiako batzuek— bilakaera txarra izan dute. Euskal Herriak 104,98 puntuko indizea lortu du, Europako batezbestekotik hurbil.

Euskal Herriak KFEG indize moderatua du, azken urteetan egonkor egon dena eta Europako batezbestekoaren azpitik. Europako beste eskualde eta estatu batzuek, inbertsio finko handiak dituzte, eta Euskal Herria erditik behera kokatzen da.

Euskal Herriko langile bakoitzeko soldata 2000. urtetik 2022ra 14.650 euro igo da, eta 2022an 40.929 eurokoa izan da. Lan orduko soldata 2000. urtean 15,9 eurokoa da eta 2021ean 26,25 eurokoa. Zenbaki horiek EU27ko batezbestekotik apur bat gorago daude, baina EU27ko eskualdeen erdietatik behera kokatzen da Euskal Herria.

Euskal Herriko errenta erabilgarria, 2021ean 19.584 eurokoa, Europar Batasuneko batez besteko errenta erabilgarria (17.800 euro) baino altuagoa da, baina Europa iparraldeko eta mendebaldeko herrialde batzuekin alderatuta, hala nola Luxenburgorekin (36.700 euro) eta Suediakoarekin (26.000 euro), urrun geratzen da. Ekialdeko Europako herrialdeek, berriz, errenta askoz txikiagoak dituzte; adibidez, Bulgariak 4.500 euro eta Errumaniak 7.000 euro ingurukoa. Horrela, Euskal Herria errenta erabilgarri altuaren artean kokatzen da, baina oraindik errenta handieneko herrialdeen lehiazeko erronkak ditu.



3

GIZARTEA


3.1

EUSKARA

2021eko inkesta soziolinguistikoaren arabera, herri-tarren %30,2 ziren euskaldunak (16 urtetik gorakoak). Ehuneko hori aise gainditzen dute Euskal Herriko herri-rik euskaldunenak, proportzioan: Oresa (%93,6), Errezil (%93,0), Ajangiz (%92,6), Abaltzisketa (%92,3), Zerain (%92,2), Arantza (%91,8) eta Araitx (%91,4). Proportzio horietatik oso urrun geratzen dira kontra-

ko muturrekoak: Corella, Milagro, Ribaforada, Valtierra, Azagra, Cabanillas eta Monteagudo, denak %0,5en azpitik. Horrela, mapan ikusi ahal den bezala, gunerik euskaldunenak Bizkaiko eta Gipuzkoako herri txiki eta ertainetan topatu ditzakegu, eta erdaldunenak Nafarroa Garaiko erdigunetik behera, baita hiriguneetan ere.


● Euskaldun proportzioa (%). Udalerrika. 2021



Gunerik euskaldunenak Bizkaiko eta Gipuzkoako herri txiki eta ertainetan topatu ditzakegu eta erdaldunenak Nafarroa Garaiko erdigunetik behera, baita hiriguneetan ere.


Aldiz, proportzioari beharrian, euskaldun kopuruari erreparatzen badiogu, mapa bestelakoa da. Gunerik euskaldunenak hiriguneetan topatzen ditugu: Bilbo (98.805 euskaldun), Donostia (80.808), Gasteiz (68.537), Barakaldo (24.785), Getxo (24.313), Irun (23.352), Iruñea (22.243) eta Errenteria (16.410).

● Euskaldun kopurua udalerrika. 2021




Hori ez da beti horrela izan, ordea. Hirigune horiek egun euskaldun gehien dituzten udalerriak dira, azken urteetan herritar asko euskaldundu direlako (hautzaroan eskoletan batez ere edota euskaltegietan) eta herrietatik euskaldunak jaso dituztelako. Hogei urte honetako aldaketari erreparatzen badiogu, aurretik aipatutako berdinak agertzen zaizkigu euskaldun kopuru gehien irabazitakoen artean: Bilbo (47.503 euskaldun gehiago 2021ean 2001ean baino), Gasteiz (38.236), Donostia (22.123), Barakaldo (16.020), Getxo (8.802) eta Iruñea (6.748).

● Euskaldun kopuru altueneko 20 udalerriak (2021) eta 2001 eta 2021 arteko aldaketa



Euskaldun kopuru aldaketa. 2001-2021. Udalerriak*



Euskaldun kopuru handienak irabazi
dituzten hiriak hauek dira: Bilbo, Gasteiz,
Donostia, Barakaldo, Getxo eta Iruñea.

Euskaldun kopuruetan eta proportzioetan egondako aldaketak kontuan hartzen baditugu, lau kategoria sortzen zaizkigu:


- Irabaziak izan dituztenak kopuruetan eta proportzioetan: guztira 341 udalerri. Hiru nagusiak lehen aipatutakoak; Bilbo, Gasteiz eta Donostia adibidez.
- Euskaldun gehiago, proportzio txikiagoa. 150 udalerri. Euskaldun kopuruak gora egin du. Hala ere, biztanleriak gora egin eta gainontzeko soslaiak ere gora egin dute. Adibide nagusiak Baiona, Beasain, Orio, Oiartzun, Gernika-Lumo, Azkoitia eta Azpeitia dira.

- Euskaldun gutxiago dituztenak, baina proportzioan gora egin dutenak: hiru udalerri dira. Hori gertatu zaie biztanleria galdu dutelako. Forua, Iurreta eta Eibar.

- Galerak izan dituztenak kopuruetan eta proportzioetan: guztira 187 udalerri. Kopurutan udalerri nagusiak Maule-Lexarre, Bermeo, Arrasate, Biarritz eta Ondarroa.

Beraz, irabaziak egon dira kopuruetan eta proportzioetan Hego Euskal Herriko ia periferia guztian. Bizkaiko eta Gipuzkoako bihotzean eta Lapurdin euskaldun gehiago daude, baina proportzionalki behera egin dute, eta Nafarroa Beherean eta Zuberoan galerak izan dira maila guztietan.

● Euskaldun kopuru eta proportzio aldaketak. 2001-2021. Udalerriak*



Euskaldun kopuruak gora egin baina proportzioan
behera egin duten udalerriak 150 dira, beti ere
biztanleriak gora egin izanaren ondorioa delarikak.



3.2

BIZTANLERIAREN FORMAZIO
MAILA

Euskal Herriko formazio maila 25-64 urteko biztanleak aztertuta, 2002. urtetik 2023.era, nabarmena da ikasketarik ez duten edo bigarren mailatik beherako hezkuntza duten pertsonen kopurua murriztu egin dela, bai Euskal Herrian, bai Europar Batasuneko 27 estatutan. Hala ere, Euskal Herrian, 2002an %47,7koa da ikasketarik ez edo bigarren mailatik beherako hezkuntza dutenen tasa, 2023an %22,7ra iritsi da. Horrekin batera, bigarren mailako hezkuntzako tituludunen kopurua ere hazi egin da, %19,6tik %24,6ra igaro baita, eta hirugarren mailako hezkuntzan %32,7tik %52,7ra handitu da.

25-64 urte artekoen formazio maila (%). Euskal Herria eta EU27. 2002-2023


■ Hirugarren mailako hezkuntza ■ Bigarren mailako hezkuntza ■ Ikasketarik ez edo bigarren mailako hezkuntzatik behera

Euskal Herria**EU27**


Horren aldean, Europar Batasuneko 27 estatuetan, oro har, ikasketarik ez dutenen edo bigarren mailatik beherako hezkuntza dutenen tasa %20,2ra iritsi da, bigarren mailako hezkuntzako kopurua %44,7ra eta hirugarren

mailako hezkuntzako kopurua %35,1era. Hala, Euskal Herria, atzerriko erregioekin alderatuta, batezbestekoaren gainetik dago hirugarren mailako hezkuntzan, eta estatuak kontuan hartuta bakarrik Irlanda dago aurretik (%54,5).


● 25-64 urte artekoetan bigarren mailako ikasketak. (%) Euskal Herria eta Europako erregioak. 2023




● 25-64 urte artekoen artean Hirugarren mailako ikasketak. (%) Euskal Herria eta Europako erregioak. 2023



Hirugarren mailako formazioa. Euskal Herria eta Europako estatuak. 2023



Bigarren mailako formazioa. Euskal Herria eta Europako estatuak. 2023



3.3

HERRITARREN JARDUERA

Jarduera tasa, 15-64 urtekoetan:


Euskal Herriko jarduera tasa %75,7koa da 2023an, eta Europar Batasuneko 27 estatuetako batezbestekoa %75,0koa. Batez ere, Alemaniako erregioek dituzte jarduera tasa altuak, guztiak %81,0 baino handiagokoak. Hala ere, Europako hainbat herrialdetan, esaterako,

Turkiako erregioek jarduera tasa baxuak dituzte, %62,0 inguru.


2023. urteko datuen arabera, Europako eskualde guztien artean, jarduera tasa handienak dituztenak Suitza eta Herbehereetakoak dira, %80tik gorakoak. Adibidez, Suitzako Lazio, Basel eta Bern eta Herbehereetako Ipar Holanda, Utrecht edo Gelderland.

Beheko aldean aurkitzen ditugu Turkiako zenbait eskualde %52 eta %45 artean (Marmara, Zilizia, Sakarya, Kocaeli, Düzce, Bolu, Zonguldak) eta Frantziako Guadalupe (%51).

Jarduera tasa orokorra, 15-64 urte artean. Euskal Herria eta Europako erregioak. 2023



Jarduera tasa orokorra eta emakumeen jarduera tasa. Euskal Herria eta Europako estatuak. 2023



Euskal Herria erdiko posizioetan aurkitzen da.


Emakumeen jarduera tasa aztertuta, Euskal Herriko %72,3koa, Europako batez besteko emakumeen jardueraren tasa gainditzen du (%70,2).

Azpitarratzekoa da Europa osoan tasa orokorraren azpitik dagoela emakumeen jardueraren tasa. Eskualde bakarra dago emakumeen tasa altuagoa duena, Finlandiako Kymenlaakso. Eskualde hauek, berriz, bi tasak berdinak dituzte: Frantzia hegoaldea, Eslovakiako


Bratislava, Finlandiako Uusimaa eta Lituaniako Vilnius. Beste guzti-guztietan aipatutako patroia errepikatzen da. Euskal Herriaren kasuan, 3,4 punturen aldea dago, eta horrekin 88 eskualde ditu bera baino hobeto (alde txikiagoa) eta 190 bera baino okerrago.

Estatu mailan aztertuta, oro har, Danimarkak, Suitzak, Suediak eta Islandiak jardueraren tasa orokor handiak dituzte, %80tik gorakoak, baita emakumeen parte-hartze altua ere. Islandiak emakumeen jardueraren tasarik handiena du (%83,9).

Emakumeen jardueraren tasa, 15-64 urte artean. Euskal Herria eta Europako erregioak. 2023



Jarduera tasa orokorra, zenbait aldagaien arabera. Euskal Herria. 1999-2023



Turkiak eta Bosnia-Herzegovinak, ordea, jarduera tasa txikiak erakusten dituzte, bai orokorrean (%59,5 eta %59,8, hurrenez hurren) eta bai bereziki emakumeen artean (%40,8 eta %47).

Euskal Herria erdiko puntuan dago, bi adierazleetan.

Euskal Herriko jarduera tasa orokorrak igoera positiboa izan du hogei urte honetan, Europako Batasuneko 27 estatuen batezbestekoarekin alderatuta. 2002an, Euskal Herriko jarduera tasa %67,7koa zen, eta 2023an %75,7ra iritsi da. Europako Batasuneko %67,7tik %75,0ra igo bada ere, Euskal Herriak Europako batezbestekoa gainditu du, eta aldi berean, emakumeen eta gizonen artean berdintasun handiagoa lortzen ari da. Emakumeen jarduera tasa %52,7tik %72,3ra igaro da, eta gizonen jarduera tasa, berriz, %77,1etik %79,2ra. Beraz, Euskal Herriak genero desberdintasuna murriztea lortu du, baina gizon eta emakumeen arteko aldea oraindik esanguratsua da.

Aldagai demografikoak aztertuz, 15-24 urteko gazteen jarduera tasa %36,8tik %32,9ra jaitsi da, eta horrek agerian jartzen du gazteek laneratzeko zailtasun handiagoak dituztela edo haien inkorporazioa atzeratzen ari direla. Aldiz, 55-64 urtekoen jarduera tasa, %34,9tik %69,4ra igaro da, eta horrek adineko langileen parte-hartzea nabarmen hazi dela adierazten du.

3.4 ENPLEGU MAILA


Jarduera tasaren bidetik, enplegu tasak antzeko joerak erakusten ditu. 2023ko datuen arabera, Euskal Herriak enplegu tasa handia erakusten du, 15-64 urteko biztanleen artean %75,7koa baita, eta horrekin EU27ko batezbestekoa gainditzen du (%75,0). Europako Batasuneko 27 herrialdeen batez besteko enplegu tasa goranzko joeran egon da 2002tik, baina Euskal Herriak beti izan du enplegu tasa handiagoa. 2005ean biak %71 inguruan kokatu ziren, eta geroztik Euskal Herria gorago egon da. Emakumeen enplegu tasa ere %72,3koa da, Europar Batasuneko emakumeen batezbestekoaren gainetik (%70,2).

Europako iparraldeko herrialdeekin konparatuz gero, Euskal Herriko enplegu tasak beherago daude; Islandian (%86,9), Herbehereetan (%85,5) eta Suitzan (%84,1) baitituzte enplegu tasarik handienak. Halaber, herrialde horietan emakumeen parte-hartzea nabarmena da, eta Euskal Herriko %72,3ko emakumeen enplegu tasa Europa mailako batezbestekoaren pareko dago; hau da, herrialde horietan baino hamar puntu beherago gutxi gorabehera.


Europa hegoaldeko eta ekialdeko herrialdeekin alderatuta, Euskal Herriko enplegu datuek alde handia erakusten dute; bereziki, emakumeen enpleguaren alorrean.

Euskal Herrian, 2002an, emakumeen eta gizonen enplegu tasen arteko aldea nabaria zen: gizonen %78,8ko tasa zuten, eta emakumeen %56,4koa, ia 22 puntu ingururen aldea. Aldea murriztu egin da urteen poderioz, baina 2023an emakumeen eta gizonen enplegu tasen arteko diferentzia 6,9 punturena da oraindik.

● Enplegu tasa orokorra, 15-64 urte artean. Euskal Herria eta Europako erregioak. 2023




● Emakumeen enplegu tasa, 15-64 urte artean. Euskal Herria eta Europako erregioak. 2023




15-24 urteko gazteetan, 2023an, enplegu tasa %32,9koa izan da Euskal Herrian, baina sektore horrek aldakortasun handia erakutsi du azken urteetan. 2008ko krisialdian %40,6koa izan zen tasa, baina azken hamarkadan behera egin du nabarmen, 2020an %26,6raino jaitsi baita.

55-64 urteko adin-taldeko enplegu tasak goranzko joera argia izan du Euskal Herrian, 2002ko %39,7tik 2023ko %69,4ra.

Enplegu tasa orokorra, zenbait aldagaien arabera. Euskal Herria. 1999-2023



Enplegu tasa orokorra eta emakumeen enplegu tasa. Euskal Herria eta Europako estatuak. 2023




3.5

LANGABEZIA MAILA

Euskal Herriko eta Europako langabezia tasak aztertzean, hainbat datu esanguratsu azaleratzen dira, bai langabezia tasa orokorrean, bai gazteen artean.

2023ko datuak kontuan hartuta, Euskal Herriko langabezia tasa orokorra %8,1 ingurukoa da, EU27ko batezbestekoaren (%6,1) gainetik, eta eskualde guztiak kontuan hartuta nahiko goian uzten du Euskal Herria, hau da, langabezia tasarik handienekoen artean. Ceuta (%30) eta Melilla (%26,6) alde batera utzita, eskualde hauek ditugu, %17 eta %19ko langabezia tasekin: Proventza-Alpeak-Kosta Urdina, Paris barne hartzen duen

● Langabezia tasa (15 urtetik gora). Euskal Herria eta Europako erregioak 2023




Ile-de-France, Andaluzia, Turkiako Van eskualdea, Extremadura eta Italiako Campania. Euskal Herria ehunekoe-tan horietatik distantzia handiagoa dago langabezia ta-sarik txikiena dutenetatik baino, baina eskualde gehiago ditu azken horietatik, langabezia tasa handiagoa dute-netatik baino. Langabezia tasarik txikiak dituztenak Polonian, Txekian eta Alemanian daude: Moravia erdial-dea, Treveris, Płock, Varsovia mendebaldea, Hego-men-debaldea.

Estatuka aztertuz gero, Bosnia eta Herzegovinak (%13,2), Espainiak (%12,2) eta Greziak (%11,1) dute langabeziarik handiena. Poloniak (%2,8), Txekiak (%2,6), Alemaniak

(%3,1) eta Islandiak (%3,5), berriz, oso langabezia tasa txikia dute. Euskal Herria, beraz, langabezia handiko es-tatuetatik gertuago dago, txikieneoetatik baino, kasu honetan bai portzentajeei eta bai postuari erreparatuta.

Euskal Herrian, 2023ko gazteen langabezia tasa (15-24 urte) %23,6koa da, eta hori beste Europar Batasune-ko herrialdeekin alderatuta nahiko altua da. Gazteen langabezia tasa handienak Espainia, Grezia, Italia eta Frantziako eskualde hauetan daude, %40tik gora: Ceu-ta Hiria, Melilla Hiria, Mendebaldeko Mazedonia, Cala-bria, Epiro, Sizilia, Campania eta Guadalupe. Kontrako aldean daude Txekia, Alemania eta Herbehereetakoak:

● Langabezia tasa. Euskal Herria eta Europako estatuak. 2023



Txekiako hego-mendebaldea, Overijssel, Stuttgart, Zeelanda, ekialdeko Suitza, erdialdeko Suitza eta erdialdeko Txekiar Probintzia, denak %6tik beherakoak. Estatuka, ia hurrenkera berdina ikusten dugu: gazte langabezia handienarekin, %25etik gorakoa, Bosnia eta Herzegovina, Espainia, Grezia eta Serbia (eta Euskal Herria ondoren) eta txikienarekin, %9tik behera, Islandia, Txekia, Herbehereak, Suitza eta Alemania.


Euskal Herrian joera eta aldagai askotarikoak aztertzen baditugu 1999an hasi eta 2023ra arte, langabezia tasa orokorra jaitsi egin da, %12,6tik %8,1era. Langabezia tasarik handienak 2012an eta 2013an izan ziren, %15,2

eta %16,2rekin, hurrenez hurren. 2020an, COVID-19 pandemiak eragindako krisi ekonomikoan handitu egin zen langabezia tasa orokorra 2021ean, %10,1era, baina handik aurrera jaisten hasi zen.

15-24 adin taldeak langabezia tasarik handiena izan du beti, 1999an %26,6. Nahiz eta 2023an %23,6ra jaitsi den, oraindik ere tasa goian dago kontuan hartzen baditugu European ikusi diren datuak.

55-64ko adin taldea 2012an %9,8ra iritsi da, serie hone-tan tasarik handiena, eta 2023an %8,0ra jaitsi da, serie guztiko erdiko puntu batean kokatuta.


● Gazteen langabezia tasa (15-24). Euskal Herria eta Europako estatuak. 2023




Emakumeen langabezia tasa orokorra %19,4tik (1999an) %8,9ra (2023an) jaitsi da. Emakumeen langabezia tasa orokorrean murrizketa nabarmena ikusi da, batez ere 2013an %16,3ra iritsita. Gizonen langabezia tasa %8,1etik (1999an) %7,5era (2023an) jaitsi da, eta tartean gorabehera asko izan ditu; azken boladako daturik txarrena: 2013ko %16,1.

Gizonen eta emakumeen langabezia tasak alderatuz gero, mendeko lehen hamarkadan bien arteko aldeak asko txikitu zirela ikusten da. 1999an 11 puntu baino handiagoa zena puntu bakarrera pasatu da 2009an. Ondoren, finantza krisia eta COVIDa dela medio, zenbakiak gora eta behera egin dute, baina bien arteko aldea ez da izan 2,3 puntu baino handiagoa, eta urteren batean emakumeen langabezia tasa txikiagoa ere izan da.

Gazteen langabezia tasa (15-24 urte). Euskal Herria eta Europako erregioak 2023



Langabezia tasa zenbait aldagaien arabera. Orotara, emakumeak, gizonak, gazteak, nagusiak. Euskal Herria 1999-2023



3.6


KONTSUMO PREZIOEN
BILAKAERA

Euskal Herriko kontsumo prezioen indizea (KPI) 2023an 119,9 ingurukoa da, eta EU27ko batezbestekoarekin alderatuta (126,38), Euskal Herria prezioen aldetik beheko mailan dago. Eskualdeen arteko desberdintasunak aztertuz, kontuan hartu behar dira Europar Batasuneko zenbait herrialde: Turkia (570,9), Hungaria (160,6) Estonia eta Lituania (149,5), KPI altukoak, Euskal Herria baino gorago iristen direnak, baina, bestalde, Suitzako


indizea (106,1) Ziprekoa (114,5) eta Greziakoa (106,1), nabarmen txikiagoak izan dituztenak 2023an. Horrek Euskal Herria tarteko leku batean uzten du.

Euskal Herriko KPIaren bilakaera 2002tik 2023ra aztertuta, kontsumo prezioen indizea etengabe igotzen joan dela ikusten da, 75,9tik hasita 119,9ra iritsi arte, hau da, %58,05eko igoera. Horrez gain, Espainia, Frantzia, Belgika eta Alemania estatu nagusiek ere KPI igoera nabarmena izan dute, Espainiako indizea 75,9tik 119,9ra iritsi baita eta Frantziakoa 81,2tik 120,5era. Esloveniako, Danimarkako eta Norvegiako KPIak ere nabarmen handitu dira, eta Norvegia %79,7tik %131,6ra iritsi da. Aldi horretan, gutxien Danimarka handitu da (36,4) eta gehien Norvegia (51,9).

● Kontsumo prezioen indizea (KPI). Euskal Herria eta Europako estatuak. 2023



● Kontsumo prezioen indizea (KPI). Bilakaera. Euskal Herria eta Europako estatu nagusiak. 2002-2023




3.7

POBREZIA ARRISKUA


Euskal Herriak, pobrezia mailan, %16,2ko arrisku tasa du 2023an. Euskal Herriaren pobrezia arriskuaren bilakaera 2015etik 2023ra arteko datuen arabera: 2015ean, %17,2ko tasa zuen, beheranzko joera bat izan du 2018an, eta %12,8ra iritsi, eta, 2019tik aurrera, tasa pixka bat handitu da, 2023an aipatutako %16,2ra iristen den arte.

Europako eskualdeei erreparatuta, 2023ko datuen arabera, pobrezia arrisku handiena duten hiru eskualdeak Guyana (%60,3ko tasarekin), Italiako Calabria (%48,6koarekin) eta Errumaniako Hego-ekialdea (%45,3koarekin) kokatzen dira. Pobrezia arriskurik txikiena duten hiru eskualdeak, berriz, hauek dira: Bolzano/Bozen Probintzia Autonomoa (Italiako eskualdea) %5,8ko tasarekin, Emilia-Romagna (Italiako beste eskualde bat) %7,4koarekin eta Varsovia hiriburua (Polonia) %8,9koarekin. Euskal Herria, %16,2ko pobrezia arrisku tasarekin, arrisku handienetik urrun dago, baina

Pobrezia eta bazterketa sozialaren arriskua (biztanleriaren %). Euskal Herria eta Europako estatu nagusiak. 2015-2023




Pobrezia eta bazterketa sozialaren arriskua (biztanleriaren %). Euskal Herria eta Europako erregioak. 2023



pobrezia arriskurik txikiena duten eskualdeekin konparatuta, badu zer hobetu oraindik.

Estatuekin konparazioan, Europar Batasunaren (EU27) batez besteko pobrezia arriskuak etengabe dauzka tasa handiagoak Euskal Herrikoak baino, 2015ean %24tik hasita 2023an %21,3ra jaitsi arte. Espainia %28,7tik hasi eta %26,5era iristen da 2023an, eta oraindik Europako pobrezia arriskurik handienetakoa du. Kontrako muturrean Finlandia edo Norvegia daude, 2023an %15,8arekin.

● Pobrezia eta bazterketa sozialaren arriskua (biztanleriaren %). Euskal Herria eta Europako estatuak. 2023




3.8

GIZARTE BABESEKO
INBERTSIOA


Euskal Herriak 2010-2019 artean gizarte babeseko gastuaren BPGaren ehunekoari eutsi dio, %23,8tik %24,3ra iritsita. Hala ere, Europar Batasuneko batezbestekoa (%28,0) eta hainbat herrialde, hala nola Danimarka (%31,7) eta Alemania (%30,0), Euskal Herriatik gorago ko-

katzen dira. 2019an, Euskal Herriak %24,3ko tasa dauka, Espainiako (%24,1) eta Greziako (%25,4) antzeko maila, baina Europar Batasuneko batezbestekotik eta Frantziako (%33,4) eta Finlandiako (%30,1) herrialdeetatik urrun dago.

Gizarte babeseko gastua BPGaren %etan. Euskal Herria eta zenbait Europako estatu. 2010-2019



Gizarte babeseko gastua BPGaren %etan. Euskal Herria eta Europako estatuak. 2019



Euskaldun kopuruei eta proportzioei dagokienez, azken 20 urteetan, irabaziak egon dira kopuruetan eta proportzioetan Hego Euskal Herriko ia periferia guztian. Bizkaiko eta Gipuzkoako bihotzean eta Lapurdin euskaldun gehiago daude, baina proportzionalki behera egin dute, eta Nafarroa Beherean eta Zuberoan galerak izan dira maila guztietan.

Euskal Herrian 25 eta 64 urte bitarteko biztanleen formazio maila 2002tik 2023ra nabarmen hazi da, ikasketarik ez duten edo bigarren mailatik beherako ikasketak duten pertsonen kopurua murriztu eta bigarren zein hirugarren mailako hezkuntzako tituludunen kopurua, berriz, handitu. Euskal Herriak Europar Batasuneko batez besteko formazio maila gainditzen du, hirugarren mailako hezkuntzan %52,7ra iristen baita, eta horren ondorioz, Irlandar estatua bakarrik du aurretik.

2023an, Euskal Herriko jarduera tasa %75,7koa izan da, eta Europar Batasuneko batezbestekoa gainditu du (%75,0). Suitzako eta Herbehereetako eskualdeek %80tik gorako jarduera tasak izan dituzte, eta Turkiako zenbait eskualde eta Frantziako Guadalupe beheko aldean aurkitzen dira (%52-%51). Euskal Herria erdiko posizioan dago.

Emakumeen jarduera tasa %72,3koa da; Europako batezbestekoa gainditzen du, beraz (%70,2). Euskal Herrian bezala, Europa osoan emakumeen enplegu tasa tasa orokorraren azpitik dago, Finlandiako Kymenlaakso salbu.

Euskal Herriko jarduera tasa azken bi hamarkadetan positiboki handitu da, 1999an %52,7koa zena 2023an %75,7koa izan da. Emakumeen tasa %36,8tik %72,3ra eta gizonen tasa %77,1etik %79,2ra igo da, eta, hala, generoen arteko desberdintasunak murriztu. Gazteen jarduera tasa, aldiz, %36,8tik %32,9ra jaitsi da, eta 55-64 urtekoen tasa %34,9tik %69,4ra igaro da, eta adineko langileen parte-hartzea handitu egin da.

2023an Euskal Herriak %75,7ko enplegu tasa du 15-64 urtekoetan, eta Europako batezbestekoa gainditzen du (%75,0). Beti dago maila altuagoan. Emakumeen enplegu tasa %72,3koa da, EU27ko emakumeen batezbestekoaren gainetik. Hala ere, Europako iparraldeko herrialdeen enplegu tasen azpitik dago, batez ere Islandiarekin, Herbehereekin eta Suitzarekin alderatuta. Emakumeen eta gizonen arteko aldea murrizten joan den arren, 6,9 puntukoa da oraindik. Gazteen enplegu tasa aldakorra izan da, eta 55-64 urtekoen enplegu tasak goranzko joera erakutsi du.

Euskal Herria, langabeziari dagokionez, nahiz eta Espainia eta Grezia baino hobeto egon, Europako batezbestekoaren gainetik dago, eta eskualde eta estatu asko aurkitzen dira hobeto.

1999tik 2023ra, Euskal Herriko langabezia tasa orokorra %12,6tik %8,1era jaitsi da; 2013an gehienekoa izan zuen, %16,2.

Euskal Herriko eta Europako langabezia tasak aztertzean, 2023ko Euskal Herriko %8,1a, EU27ko batezbestekoaren gainetik (%6,1) eta eskualde altuenen artean kokatzen da; Ceuta eta Melillaren ondoren, Proventza-Alpeak-Kosta Urdina, Ile-de-France, Andaluzia eta Italiako Campania dira Europan langabezia tasa handiena duten eskualdeak. Estatuka, Bosnia (%13,2), Espainia (%12,2) eta Grezia (%11,1) dira langabezia handiena dutenak, Polonia (%2,8), Txekia (%2,6), Alemania (%3,1) eta Islandia (%3,5) bezalako herrialdeek langabezia tasa oso txikiak dituzte.

Gazteen langabezia tasa (15-24 urte) Euskal Herrian %23,6koa da, Espainia, Grezia eta Italiako eskualde altuenen pare; alderatuta, Txekia eta Alemania %6tik beherako langabezia tasarekin agertzen dira. Gazteen langabezia tasa handiena %26,6ra iritsi zen 1999an, eta 2023an %23,6ra jaitsi da, oraindik ere Europako datuekin alderatuta altua. Emakumeen langabezia tasa %19,4tik %8,9ra jaitsi da, eta gizonen langabezia tasa %8,1etik %7,5era, bi generoen arteko aldeak murriztu direlarik.

Euskal Herrian eta Europako estatu nagusietan KPIa igo egin da orokorrean, baina Euskal Herriko prezioen indizeak Europako batezbestekoaren azpitik jarraitzen du, eta prezioak Europako hainbat herrialdetan, batez ere Balkanetako eta Baltikoko estatuetan, handiagoak dira. Hala ere, bilakaerak positiboa izaten jarraitzen du, iragan urteetan igotzen joan baita.

Euskal Herriak 2023an %16,2ko pobrezia arrisku tasa du. 2015ean, %17,2tik %12,8ra jaitsi zen, baina 2019tik aurrera pixka bat handitu da. Europako eskualdeen artean, pobrezia arrisku handiena duten hiru eskualdeak Guyana (%60,3), Italiako Calabria (%48,6) eta Hego-Ekialdea (%45,3) dira; pobrezia arrisku txikiena dutenak, berriz, Bolzano/Bozen (%5,8), Emilia-Romagna (%7,4) eta Varsovia hiriburua (%8,9) dira. Euskal Herria arriskurik handienetik urrun dago, baina pobrezia arriskurik txikiena duten eskualdeekin alderatuta, badu zer hobetu. Europar Batasunaren batezbestekoa %21,3koa da, Espainiak %26,5eko tasa du, eta Finlandia eta Norvegia %15,8ko tasan daude.

Euskal Herriak 2010-2019 artean gizarte babeserako gastuaren BPGaren ehunekoa bere horretan eduki du, %23,8tik %24,3ra iritsi delarik. Hala ere, Europar Batasuneko batezbestekoa (%28,0) eta hainbat herrialde —hala nola Danimarka (%31,7) eta Alemania (%30,0)— Euskal Herritik gorago kokatzen dira. 2019an, Euskal Herriak %24,3ko tasari eusten dio, Espainiako (%24,1) eta Greziako (%25,4) antzeko maila, baina urrun dago Europar Batasuneko batezbestekotik, Frantziakotik (%33,4) eta Finlandiakotik (%30,1).



4

—
INGURUMENA


4.1

AIREAREN KUTSADURA


Euskal Herrian berotegi efektuko gasen isurketak 11,8 CO₂-eq(kt) (CO₂ baliokidea kilotoneladetan) ziren biztanleko, eta 8,6ra jaitsi dira 2005etik 2022ra. EU27ko batez besteko isurketekin alderatuta —9,9tik 7,8ra jaitsi dira—, gainera kokatzen da Euskal Herria. Azken lau urteei erreparatuta, badirudi pandemiaren ondorioz biztanleko isurketa kopuru txikiak lortu direla 2020an (7,5era iritsi ziren) eta 2021ean (8,3). 2022an, berriz, isurketak pixka bat handitu dira, eta 2019ko 8,6ra iritsi dira, berriro ere.

2022an, Estonia (13,0), Irlanda (14,7) eta Luxemburgo (17,2) dira biztanleko isurketa gehien dituztenak. Kontrako aldean, Suedia (0,8), Errumania (3,8) eta Malta (4,7) daude. Euskal Herria, 8,6ko isurketa kopuruarekin, Europako estatuen arteko konparaketa eginez, Danimarkaren (8,2) eta Letoniaren (8,4) pare dago, erdialdetik gora.

● Berotegi efektuko gasen isurketa guztien bilakaera biztanleko. CO₂ baliokidea kilotoneladetan [CO₂-eq(kt)]. Euskal Herria eta EU27 2005-2022



● Berotegi efektuko gasen isurketa guztiak biztanleko. CO₂ baliokidea kilotoneladetan [CO₂-eq(kt)] Euskal Herria eta Europako estatuak. 2022



4.2


KLIMA ALDAKETA

Berokuntza graduen egunak izeneko indizea (BGE): denbora tarte jakin batean hotzak duen larritasuna, aire zabaleko tenperatura eta giroko batez besteko tenperatura kontuan hartuta (hau da, berogailuaren beharra zenbatekoa den adierazten du). Oinarritzko tenperaturaren balioa eraikinarekin eta inguruarekin lotutako hainbat faktoreren arabera da, baina, hurbilketa klimatologiko orokor bat erabiliz, oinarritzko tenperatura 15 °C-ko balio konstantean ezartzen da BGE kalkulatzeko. Beraz, Euskal Herriak eta EU27k 1979-2023 artean egindako berokuntza graduen egunek (BGE) adierazten dute nola joan den aldatzen hotzaren larritasuna urteetan.

Euskal Herria eta EU27 erreferentziazat hartzen badugu, bi azpimarra argi ageri dira. Batetik, Euskal Herrian EU27an baino berotzeko behar gutxiago egon da serie guztian. Eta batez ere, bai Euskal Herrian eta bai EU27 osoan, 1979tik hona, geroz eta behar gutxiago egon da berogailuak erabiltzeko. Urtez urteko joera puntualetatik harago, joera orokorrak argi erakusten du hori: Euskal Herria 1979an 2.197,2 BGE zena 2023an 1.585,1 BGE izan da. EU27k 1979an 3.509,57 BGE zuena 2023an 2.820,92 BGE izan du.




● Berokuntza graduen egunak. Euskal Herria eta EU27. 1979-2023



Laburbilduz, Euskal Herriak hotzaren larritasuna murriztu du azken urteetan. EU27ren batezbestekoak Euskal Herrikoak baino handiagoak dira. Berokuntza beharrak Europako beste estatu batzuetan Euskal Herrikoak baino handiagoak direla adierazten du horrek, baina joera berdina da, geroz eta behar gutxiago baitago berogailuak erabiltzeko.

Eskualdeka aztertuta, hegoaldeko herrialdeak dira, noski, berogailu behar gutxien dutenak (Kanariak, Ceuta Hiria, Malta, Hego Egeo, Zipre, Melilla Hiria eta Algarve) eta iparraldekoak gehien (Ipar eta Ekialdeko Suomi, Innlandet, Ipar Norvegia eta Goiko Norrland). Euskal Herria gutxien behar dutenetik hurbilago dago.

● Berokuntza graduen egunak. Euskal Herria eta Europako erregioak. 2023



BGE: Eguneko batez besteko tenperatura erreferentziazko tenperatura batetik (adibidez, 18 °C) baxuagoa bada, diferentzia hori gehitzen da BGE baliora. Adibidez: Egun jakin batean batez besteko tenperatura 10 °C bada, eta erreferentzia 18 °C bada, egun horretako BGE balioa 18°C-10°C=8 izango da. Urteko BGE: Egun bakoitzeko diferentziak batuz lortzen da.

Euskal Herrian geroz eta behar gutxiago
dago berogailuak erabiltzeko.


4.3

ENERGIAREN KONTSUMOA
ETA ERREGAIK


Euskal Herria 2010ean 26,0 Ktep/10.000 biztanleko kontsumoan egon da, eta hurrengo urteetan zertxobait jaitsi da, 24ko bueltan kokatu den arte. 2020an, 21,5 Ktep/10.000 biztanleko izan dira, baina horretan pandemiak eragina izango zuen.

Estatuka Euskal Herria kontsumo ertain-altua dutenen artean dago. Kontsumo txikiena dutenak, Albania (6,5), Mazedonia (8,8) eta Moldavia (9,3). Kontsumo handiena dutenak, Finlandia (42,3), Luxenburgo (60,9) eta Islandia (81,2). Hala ere, bostgarren estatua, Suedia, 30etik behera ikusten dugu. Euskal Herria, beraz, kopuru maximo horietatik urrun dago, baina hala ere, kontsumo handiko herrialdeen artean dago.

● Energiaren azken kontsumoak (Ktep/10,000 biztanleko). Euskal Herria eta EU27. 2010-2020




● Energiaren azken kontsumoak (Ktep/10.000 biztanleko). Euskal Herria eta Europako estatuak. 2020




Energia moten arabera aztertzen badugu, azken urteetan, Euskal Herriko energia kontsumoan petrolioak da nagusi (%43,3) eta portzentajea hazi egin da gainera (2011n %39,8 baitzen). Energia elektrikoaren kontsumoa, portzentajea, jaitsi egin bada ere, bigarren energia iturria da orain (%24,2), gas naturalaren aurretik (%22,2). Petrolioaz gain igoera txiki bat izan duten energia iturri bakarrik energia berriztagarriak dira (%5,8tik %7,9ra).

Europarekin alderatuta, Euskal Herriak ez du bilakaera onik erakusten. Euskal Herriak petrolioaren kontsumoa handitzen jarraitu du, %39,8tik %43,3ra; EU27k, aldiz, jaitsi egin du %38,0tik %35,0era 2020an. Energia elektrikoa gutxiago kontsumitu da Euskal Herrian, eta EU27an igo egin da (-1,7 eta +0,4). Energia berriztagarrietan, 2,1 puntu igo da Euskal Herria, 2,8 berriz EU27. Adierazle bakarria dago Euskal Herriak EU27 hobetzen duena: gas naturalaren kontsumoa, zeinetan 4 puntu egin duen behera Euskal Herrian, EU27ren 0,5eko hazkundearen ondoan.

Energiaren azken kontsumoa, energia moten arabera, % (Ktep). Euskal Herria 2011-2020



Energiaren azken kontsumoa, energia moten arabera, % (Ktep). EU27 2011-2022




4.4

ELIKAGAIEN KONTSUMOA


Euskal Herrian etxeetako janari kontsumoa azken hamarkadan nabarmen jaitsi da. 2008an, urteko janari kontsumoa 2.012.068 kilogramo izan da, 2023an 1.779.969 kilogramoetara jaitsi da. Serieko datu guztietan etxeetako janari kontsumoa etengabe txikitzen da.

● Euskal Herriko biztanleriaren janari kontsumoa (mila kilo edo litro). 2008-2023




Euskal Herriko biztanleriaren janari kontsumoa aztertuta, kontsumo orokorra (janaria guztira) etengabe jaitsi da 2008tik 2023ra, 657 kilogramotik 554 kilogramora. Produktuz produktu aztertuta, gehien kontsumitzen dena fruta freskoa da (91 kilo pertsonako urtean), esnea (74) eta barazki freskoa (57). Barazki freskoa da 2008tik igo den bakarra (+1). Jaitsiera nabarmenena ogiak izan du (21 gutxiago, ia erdia galduta) eta gero fruta freskoak eta esneak (-18).

Euskal Herriko biztanleriaren janari kontsumoa (kilo edo litro pertsonako urtean). 2008-2023



Euskal Herriko biztanleriaren janari kontsumoa, motaren arabera (%). 2023



Euskal Herrian berotegi efektuko gasen isurketak 11,8 CO₂-eq(kt) (CO₂ baliokidea kilotoneladetan) 8,6ra jaitsi dira biztanleko, 2005etik 2022ra. Jaitsiera horrekin ere, Europako estatuen arteko konparaketa eginez, erdialdetik gora dago isurketetan.

Euskal Herriak hotzaren larritasuna (BGE berokuntza graduen egunak indizean neurtuta) murriztu egin du azken hamarkadetan. EU27ren batezbestekoak Euskal Herrikoak baino handiagoak dira, eta horrek adierazten du berokuntza beharrak handiagoak direla Europako beste estatu batzuetan Euskal Herrian baino, baina joera berdina da: geroz eta behar gutxiago dago berogailuak erabiltzeko.

Euskal Herriko energia kontsumoan ez da beheranzko joera argirik antzematen, eta, Europako estatuekin alderatuta, energia kontsumo altuena dutenen artean dago (oso kontsumo altuak dituzten hiru estatu kenduta).

Energia motaren arabera, Euskal Herriko bilakaera propioan eta Europarekiko alderaketan, ez du emaitza onik ateratzen: Euskal Herriak petrolioak kontsumitzen du gehienbat, eta joera handitzen ari da, %39,8tik %43,3ra. EU27k, aldiz, jaitsi egin du %38,0tik %35,0era 2020an. Energia elektrikoa gutxiago kontsumitu da Euskal Herrian, eta EU27an, berriz, gehiago (-1,7 eta +0,4). Energia berriztagarrietan, 2,1 puntu igo da Euskal Herrian, 2,8 berriz EU27n. Adierazle bakarra du Euskal Herriak EU27k baino hobea: gas naturalaren kontsumoa, zeinetan 4 puntu egin duen behera Euskal Herrian, EU27ren 0,5eko hazkundearen ondoan.

Euskal Herrian etxeetako janari kontsumoa azken hamarkadan nabarmen jaitsi da, 2008ko 2.012.068 kilogramotik 2023ko 1.779.969 kilogramoetara iritsi baita. Gehien kontsumitzen diren produktuetan, fruta freskoa dago (91 kg) eta ondoren datoz esnea (74 kg) eta barazki freskoa (57 kg); barazki freskoak bakarrik izan du igoera txiki bat; ogia, berriz, nabarmen jaitsi da, ia erdiraino (21 kg gutxiago), eta fruta freskoa eta esneak ere dezente jaitsi dira (-18).

METODOLOGIA

LABURPENA

Euskal Herri mailako adierazle sistemaren metodologiaren deskribapena

Adierazle sistema hau Euskal Herriko garapenaren oinarritzko diagnostikoa eskaintzeko sortuta dago, demografiari, ekonomiari, jendarteari eta ingurumenari lotutako eremuak kontuan hartuz. Europa mailan erabiltzen diren adierazleekin bateragarri izatea bilatu dugu, eta, horretarako, hainbat erakunderen datuak konbinatu ditugu.


Irizpide orokor gisa, adierazleen bateragarritasuna edota alderagarritasuna bermatzeko, nazioarteko definizioak eta metodologia komunak erabili dira, Eurostatek erabiltzen dituen irizpideekin bat etorrita. Horregatik, kasu askotan, nahiz eta zenbait daturen kalitatea hobe izan zitekeen Eustatetik edo Nastatetik jasotakoa, alderagarritasunaren irizpideari jarraituta, Eurostatek emandakoa lehendetsi da.

Zenbait adierazletan Euskal Herriko datua sortzeko edo lortzeko, lehenik Ipar Euskal Herriko datuen estimazioa egin behar izan da, datu propiorik ezean, eta ondoren gainontzeko datuekin batera haztatu.

Aldagai askotan estatistika erakundeek aurreikuspenak edo estimazioak egiten dituzte, eta nolabait datu “berriagoak” eskaini. Txosten honetan, finkatutako datuen alde egin dugu. Izan ere, aurreikuspen edo estimazio horietako asko finkatzen direnean aldatzen dira, eta, beraz, orientazio bezala erabil daitezke une jakin batean, baina, lan honen helburuak kontuan hartuta, dagoeneko finkotzat jotzen diren datuen alde egin dugu. Hori dela eta, adierazle batzuetan azken datua orain dela hiru edo lau urtekoa da.

Azkenik, badira datu batzuk —biztanleriarenak, adibidez— desagregazio mailaren arabera erreferentziazko urtea berriagoa edo zaharragoa dutenak. Horregatik, adierazle baten datu batentzat erreferentziazko urtea ezberdina izan daiteke, alderaketa egiten den maila geografikoaren arabera edo datu horren segmentuaren arabera (datu orokorretik adinaren edo sexu-generoaren arabera, adibidez).

Adierazleei dagokienez, horiek biltzeko lau eremu zehaztu ditugu (demografia, ekonomia, jendarte eta ingurumena), eta eremu bakoitzaren barruan zenbait adierazle. Horiek, ondoren, grafiko mota ezberdinetan irudikatu ditugu.



Lau eremu horien barruan, honela multzokatu ditugu landutako 29 adierazleak:

1. Demografia

Demografiari lotutako adierazleek Euskal Herriko biztanleriaren egungo egoera eta joerak aztertzen dituzte. Biztanleria, dentsitatea, adin egitura, migrazioak, jaiotzak eta heriotzak.

2. Ekonomia

Ekonomiaren eremuan, hainbat adierazle aztertzen dira Euskal Herriko ekoizpen gaitasuna, merkataritza, berrikuntza eta biztanleen ongizatea neurtzeko. Honako hauek dira aztergai nagusiak:

- Barne produktu gordina (BPG) eta BPGa biztanleko, balio erantsiaren egitura, eta lanaren produktibitatea.
- Merkataritza datuak (esportazioak, inportazioak eta merkataritza-balantza).
- Berrikuntza jarduerak, enpresa inbertsioa, lansariak eta errenta datuak.

3. Jendartea


Jendarteari lotutako adierazleek biztanleriaren ongizatea eta gizarte-egoera neurtzen dute.

- Euskararen ezagutzaren eta erabileraren bilakaera datuak.
- Formazio maila, herritarren jarduera eta enplegu- eta langabezia-maila herritarren gizarte eta lan egoera aztertzeko.
- Kontsumo prezioen bilakaera, pobrezia arriskua eta gizarte babeseko inbertsioa.

4. Ingurumena

Ingurumenari lotutako adierazleek Euskal Herriko ingurumen-kalitatearen eta iraunkortasunaren egoera islatzen dute, honako elementu hauek aztertuta:

- Airearen kutsadura, klima aldaketa eta energiaren kontsumoa eta erregaiak.
- Elikagaien kontsumoa, Euskal Herriko kontsumo ohiturak eta baliabideen erabilera aztertzeko.



MAPAK

Adierazle sistema honek Euskalgeok eta Datu Tailerrak sortutako mapak erabiltzen ditu eremu geografikoen datuak espazioan kokatzeko eta modu bisualean irudikatzeko. Mapa horiek Euskal Herriko barne egiturak jasotzen dituzte (udalerrika, eskualdeka, herrialdeka...) baita Euskal Herria nazioartean kokatuta ere (Europako erregioetan eta Europako estatuen artean).

Mapen azpiegitura hori baliatuta sortu ditu GAINDEGIAk txostenean dauden mapa eta grafiko guztiak.

DATU ITURRIAK

DEMOGRAFIA

1. Biztanleria: Eustat, Nastat, INE, Insee, Eurostat eta GAINDEGIA.
2. Biztanleriaren dentsitatea: Eustat, Nastat, INE, Insee, Eurostat eta GAINDEGIA.
3. Biztanleriaren adin egitura: Eustat, Nastat, INE, Insee, Eurostat eta GAINDEGIA.
4. Migrazioak: Eustat, Nastat, INE, Insee, Eurostat eta GAINDEGIA.
5. Jaiotzak: Eustat, Nastat, INE, Insee, Eurostat eta GAINDEGIA.
6. Heriotzak: Eustat, Nastat, INE, Insee, Eurostat eta GAINDEGIA.

EKONOMIA


7. BPG: urte arteko hazkundea: Eustat, Nastat, INE, Insee, Eurostat eta GAINDEGIA.
8. BPGa biztanleko: Eustat, Nastat, INE, Insee, Eurostat eta GAINDEGIA.
9. Balio erantsiaren egitura: Eustat, Nastat, INE, Insee, Eurostat eta GAINDEGIA.
10. Ondasun eta zerbitzuen esportazioak: Eustat, Nastat, Espainiako Industria, Komertzio eta Turismo Ministerioa, C-Intereg, Insee, Eurostat, GAINDEGIA.
11. Ondasun eta zerbitzuen inportazioak: Eustat, Nastat, Espainiako Industria, Komertzio eta Turismo Ministerioa, C-Intereg, Insee, Eurostat, GAINDEGIA.
12. Merkataritza -balantza: Eustat, Nastat, Espainiako Industria, Komertzio eta Turismo Ministerioa, C-Intereg, Insee, Eurostat, GAINDEGIA.
13. Berrikuntza jarduerak: Eustat, Nastat, INE, Insee, Eurostat eta GAINDEGIA.
14. Lanaren produktibitatea: Eustat, Nastat, INE, Insee, Eurostat eta GAINDEGIA.
15. Enpresa inbertsioa: Eustat, Nastat, INE, Insee, Eurostat eta GAINDEGIA.
16. Lansariak: Eustat, Nastat, INE, Insee, Eurostat eta GAINDEGIA.
17. Herritarren errenta: Eustat, Nastat, INE, Insee, Eurostat eta GAINDEGIA.

JENDARTEA

- 18. Euskara: Eustat, Nastat, Eusko Jaurlaritza. Inkesta soziolinguistikoa eta biztanleria zentsua.
- 19. Biztanleriaren formazio maila: Eustat, Nastat, INE, Insee, Eurostat eta GAINDEGIA.
- 20. Herritarren jarduera: Eustat, Nastat, INE, Insee, Eurostat eta GAINDEGIA.
- 21. Enplegu-maila: Eustat, Nastat, INE, Insee, Eurostat eta GAINDEGIA.
- 22. Langabezia-maila: Eustat, Nastat, INE, Insee, Eurostat eta GAINDEGIA.
- 23. Kontsumo prezioen bilakaera: Eustat, Nastat, INE, Insee, Eurostat eta GAINDEGIA.
- 24. Pobrezia arriskua: Eustat, Nastat, INE, Insee, Eurostat eta GAINDEGIA.
- 25. Gizarte babeseko inbertsioa: Eustat, Nastat, INE, Insee, Eurostat eta GAINDEGIA.

INGURUMENA

- 26. Airearen kutsadura: Eustat, Nastat, INE, Insee, Eurostat eta GAINDEGIA.
- 27. Klima aldaketa: Eustat, Nastat, INE, Insee, Eurostat eta GAINDEGIA.
- 28. Energiaren kontsumoa eta erregaiak: Eustat, Nastat, INE, Insee, Eurostat eta GAINDEGIA.
- 29. Elikagaien kontsumoa: Eustat, Nastat, Espainiako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa, INE, Insee eta GAINDEGIA.



**GAINDEGIA,
DUELA 20 URTE**

Antxon Lafont,
mugaz gaindiko
EHren eta gizarte
zibilaren apostolua



Inor hautatu behar bada GAINDEGIaren sorreran kokatzeko, Antxon Lafont Mendizabal hautatu behar da. Euskal Herri osoa hartzen duen behategi sozioekonomikoarena ez zen gorpuzten hasi harik eta proiektura jendea batu eta kolektibo kualifikatu koskor bat eratu zen arte. Baina sortzeko izen bat nabarmendu behar eta, une haiek ikusi zituztenen begiradak ezinbestean jartzen dira donostiar enpresaburuaregan. Ondoren, GAINDEGIak bere fundazioa formalizatu zuen, eta azkenean 2003an erregistratu zen.

→Xabier Oleaga-Arondo

Kazetaria eta Gaindegiko idazkaria

Kultura itzeleko gizona, arlo jakinetan ezagutza zabalekoa —hala nola Fisikan, Kimikan eta Matematikan—, prestakuntza intelektual sendokoa eta ezin hobeki mintzatzen dituen gaztelania, frantsesa eta ingelesa (euskara hurbildu zen, baina ez da iritsi hura menderatzera). Bere ibilbidean, besteak beste, enpresaburu eta Baionako Merkataritza Ganberako zuzendari izana da, eta EAEko KES Kontseilu Ekonomiko eta Sozialeko presidente, kontseilu horretako ordezkari sindikalek hala proposatuta. *Epistemología de la Ordenación del Territorio, enfoque Geopolítico* doktore tesia aurkeztu zuen 2009. urtean UPV/EHUn, eta bikain cum laude kalifikazioa eman zion epaimahaiak.

Etorkizun ameslari izan da, eta Euskal Herriari beti Europaren ikuspegitik begiratu dio. Horrek azaltzen du, besteak beste, Baionako Ganberaren zuzendartzarako hautagai gisa aurkeztu eta hautatua izatea. KESeko presidente gisa izandako esperientziatik bertatik ere, esandako zentzuan mintzatu zen. Carlos Etxeberriak *Noticias de Gipuzkoa* egunkarirako egingandako elkarrizketa batean, 2011ko azaroaren 1ekoan, honela adierazi zuen: “Euskal Herri osoa hartuko duen CES bat sortzeko etapan murgildu beharra dugu, zeren eta gero eta gai ekonomiko eta sozial gehiago daude Bidasoaren bi aldeei batera eragiten dietenak”.

Lehenago ere, beste aldizkari batean, honela adierazi zuen: “Lurraldearen antolamendua askoz ere

konplexuagoa da, estatuz gaindikoa behar du izan”. “Europaz eta globalizazioaz ari bagara, ezin dugu autonomia edo eskualde jakin baten lurralde antolamendua egin”, gaineratu zuen.

Globalizazioa ere beti egon zen presente enpresaburu donostiarren gogoetetan. “Globalizazioan, sustrairik edo nortasunik ez baduzu, galdu egin zaitezke”, zioen. “Hori bera ari da gertatzen lurralde antolamendu espekulatiboetan beste maila batean: toki bateko edo besteko ekimenak berdinak dira, ez dago nortasunaren inolako errespeturik. Nortasunik gabeko mundua nahi badugu, bide zuzenetik goaz. Iraganik ez izatea zama handia da, baina orainaldia ez errespetatzea zama baino gehiago da: etorkizunean sartzeko beldurra”.

EMAKUMEAREN, AFRIKAREN ETA GIZARTE ZIBILAREN MENDEA

Gizarte zibila sarritan izan da Antxon Lafonten gogoe-tagai. “Gizarte zibilaren partaidetza XXI. mendea ezau-garrituko duten alderdietako bat da”, esaten zuen. “Emakumearen, Afrikaren eta gizarte zibilaren mendea izango da”, zioen 2009ko apirilean beste elkarrizketa batean. “Gizarte zibilak ondo prestatu behar du, eta formakuntza indartsu batekin jantzi. Horrela, gizarte politikoari indar handiagoa emango dio, krisian baitago; izan ere, jendea kokoteraino dago gauza askorekin, baina ezinbestekoa izaten jarraitzen du. Izen-dapenak atzamarrarekin fundamenturik gabe egitea, horrek kalte egiten dio gizarte politikoari”.

Ez da harritzekoa sinesmen horiekin —enpresaren mundutik etorririk baina gainera oro har prestakuntza filosofiko eta intelektual sendokoa izanik— gizarte zibileko plataforma bat sortzera animatu izana, GAINDEGIA, alegia, zeinak modua ematen baitu “Europako hedadura duen euskal espazio bat osatzea” oztopen duten traba administratiboak gainditzeko eta estatuaren edo erkidegoen definizioa gainditzeko (Espainiako Estatuko autonomia erkidegoei erreferentzia eginez).

Oharra. -Antxon Lafont gaur egun ospitalean da. Hori dela eta, zoritxarrez, ezin izan diogu elkarrizketarik egin zuzenean, zeina, zalantzarik gabe, mamitsua izango baitzen. GAINDEGIaren atzera begirako atal honetan bera aipatu gabe uztea, ordea, ez zaigu burutik pasatu ere egin. Azkenik, testu esanguratsuen hautaketa bat egin dugu, aurreko urteetan emandako elkarrizketa eta artikuluko periodistiko ugarietatik erauzita, lerro batzuk gorago jarri ditugunak.



Xabier Isasi Balanzategi

2024-10-06

Zertan da Euskal Herria?

Hiru milioi biztanle inguru garen herri honetan Atharratzetik Turtziozeraino, Bastidatik Gixuneraino edo Hondarribitik Ablitaseraino lur, industrigune, hizkera eta paisaia askotarikoak biltzen dira. Gure txikitasun horretan dagoen heterogenotasuna Euskal Herriaren ezaugarria izanik, herri izaera nabarmendu eta indartu nahi izan genuen. Horretarako sortu genuen GAINDEGIA orain dela hogeitau urte.

Euskal Herria berez beti izan da Iberiar penintsularen eta Europako kontinentearen arteko igarobide naturala; kokapen geografiko horrek esanguratsuki eragin izan du gure historian. Gureari utzi, eta Euskal Herria kultura eta hizkuntza askoren arragoa izan da, eta kultura horietatik ikasi dugu. Horrekin batera, gure ekonomia eta gizarte garapena igarobide izate horri loturik joan da. Itsasoa muga baino gehiago zabalgun eta aberastasun iturri izan dugu, eta gehienetan ederki asmatu dugu gure egoeratik etekinak ateratzen.

Idea horiek generabiltzan Euskal Herrian duela hogeitau urte pentsatzen genuenean, eta, GAINDEGIAren proiektuari forma ematea erabaki genuenean, globalizazio eta iraultza teknologikoan murgilduta geunden. Oraindik ere, aldaketa abagune sakonean murgildurik gaude. Mundu elkarlotu honetan non eta nola egon nahi dugun ezbaian

dago, eta, Euskal Herriaren eraketari dagokionez, ez dugu aurrerapauso esanguratsurik egin. Badakigu jakin egoera ez dela erraza, baina noiz izan dugu abagune errazik?

GAINDEGIAk ur uherretan sortu eta bizi behar izan du, laguntza eta babes handirik gabe, sarri askotan itolarrian baina bizirik. Euskal herrietako mugak eta ahulguneak aztertu ditugu, zehaztu ditugu zenbat herritar bizi diren zenbat udalerrian eta lurraldearen antolakuntza nolakoa den. Ohartu gara kohesioa eta auzolana gure garabidearen giltzarriak direla. Ildo beretik, Euskal Herriko gizarte berrian informazioa, formazioa, teknologien transferentzia, ideien etengabeko trukea eta eraldatzeko gaitasuna funtsezkoak izan dira gizartea eta ekonomia garatzeko.

Profesionalak, enpresariak, unibertsitarioak, sindikalistak, hedabideetakoak eta herrigintzako beste sektore batzuetakoak elkartu ginen GAINDEGIAN. Ikuspegi, formazio eta pentsamoldeen aniztasun hori, oztopo barik, Gaindegiaaren ezaugarri bereizgarria bilakatu zen. Horrela, honela zehaztu genuen Gaindegiaaren xede nagusia: *Euskal Herriko sozioekonomia esparru zabala bizitzeta eta biziberritzea, errealitate sozioekonomiko nazionala abiapuntu, eraketarako eta garapenerako ildo nagusiak aztertu eta aurrera urratsak egitea ahalbidetu*. Horrela, GAINDEGIAREN sortze helburuak, betiere Euskal Herriaren eraketari eta

garapenari begira, hiru alor nagusitan zedarritu genituen:

- 1. Egoera aztertu.** Euskal Herriko instituzio eta administrazio publikoak, lan munduko erakundeak (sindikatuak, enpresarien elkargoak eta izaera sozialeko erakundeak), unibertsitateak eta ikerketa erakundeak. Horiek guztiek modu batean edo bestean egiten dute egoeraren azterketa. Baina gehienetan nor bere aldetik eta nork bere esparrutik. Ikuspegi osoa eta integratua falta izan dugu. Hala bada, integrazio eta osotasun hori lantzen hasi zen Gaindegia.



Euskal herrietako mugak eta ahulguneak aztertu ditugu, zehaztu ditugu zenbat herritar bizi diren zenbat udalerritan eta lurraldearen antolakuntza nolakoa den.



Hori izan da Gaindegiaren ekarpena, eta horrek eman dio Gaindegiari sinesgarritasuna eta erabilgarritasuna.

- 2. Loturak sortu, sareak eratu.** Euskal Herriko eragile sozioekonomikoen artean harremanak sustatu ditugu: elkarren eza-gutza bultzatu, teknologia eta ezagutzen transferentzia ahalbidetu, alor bakoitzeko erakundeetatik jaso eta euren erakundetze lanetan lagundu: enpresariak direla, lan-elkargoak direla, sindikatuak direla, profesionalak eta hedabideetako sareak. Eta, horrekin batera, lurraldeen artean eta lurralde barruan dauden desorekak aztertu eta gaingintzeko bideak bilatu.
- 3. Informazioa hedatu eta eztabaidak sustatu.** Euskal Herriaren eraketaren eta garapenaren gaineke gaitan murgildu gara Euskal Herriaren irudia proiektatzeko. Lehiari muzin egin gabe, beraren gainetik nazio proiektuak posible direla erakutsi dugu.

Big data-ren garaiotan, datuak modu egokian ustiatzea eta interpretatzea guztiz beharrezkoa da. Euskal Herriak, garaiotan izan izango bada, hain zuzen ere, hori behar du. Hori egiten zuen, besteak beste, Gaindegiak. Hori da, gure ustez, Gaindegiak egin beharko lukeena, nork bestela?



Imanol Esnaola

Gaindegiaren koordinatzailea
2004tik 2021era.

Behategi baten hastapenak

Gaindegiaren sortze batzarrak egitasmoaren oinarriak jarri zituenean (2004), oihartzun handiko ilusio eta asmo zahar-berriak arrapiztu ziren: ekonomia eta gizarte arloan Euskal Herria bere luze-zabalean aintzat hartuko lukeen behategia!


Gaindegia ez zen hutsetik abiatzen, elkarrekin uztartu ezin ziren jarduerak, azterlanak eta adierazle sistemak abian ziren, tokian toki eta elkarren arteko osagarritasunik gabe, zein bere erronkari lotuta. Ataka horretan, Udalbiltzak, Datuen Talaia egitasmoen bitartez, errealtate aberats baina atomizatu baten gainetik egiteko zegoen horren lagina eskaini nahi izan zuen (2002).

Zer zegokion, ordea, Gaindegiari une hartan? Eta nola egin? Naziogintzaren foro formal eta informatan ibilitako hamaika lagun bildu ziren hartan, denon bistakoak ziren gabeziak eta aukerak. Besterik zen, ordea, egitasmo bat apailatzea uneko egoeran ekarpena egitera iritsiko zena. Izan ere, arestian aipatutako atomizazioari bigarren ezaugarri bat gehitu behar zitzaion, askoren dibergentziarako joera, hori ere aski zaharra gure artean.

Beraz, nola eraman bururaino ezagutza sortu, hedatu eta herri ikuspegia garatzeko erronka zahar-berritua?

Une hartan zer egin eta nola egin galderak zeuden mahai gainean, eta antagonikoak zirela zirudien. Elkartearen xedeari forma ematea egokitu zitzaigun Xabier Isasi eta niri, lehenari lehendakaritzan eta bigarrenari koordinatzaile lanetan. Eta, galdera horiei materialki erantzunez, ibilbide bat osatu behar izan genuen, ginkana baten modura: konpromiso materialak ziurtatu, lantaldea osatu, lan prozedurak ezarri, bitartean emaitzak plazaratu eta abar. Gora hartu genuen eskuetan Euskal Herriaren definizio operatiboa egitea. Behategiaren misioa Euskal Herriari buruzko ezagutza hornitzea baldin bazen, Euskal Herriaren definizio operatiboa eginez bideratzea izan zen geuk hartutako bidea. Zein dira gure herriaren dimentsioak? Nola ari dira bilakatzen? Nola gaude erreferentziazko herri eta estatuen aldean? Zertan da gure herriaren geografia sozioekonomikoa? Nola dago eremu bakoitza? Zertan dira horien arteko aldeak?

Euskal Herriaren definizio operatiboa egiteak berekin zekarren exijentzia: lan hori modu homologatuan egin beharra. Horrek besteak beste eskatzen zuen adierazle estandarrak, datu iturri ofizialak eta onetsitako lurralde egiturak aintzat hartzea. Eta ez zen lan erraza; besteak beste, gure herriak bere gabeziak baititu. Edonola ere, gaur egungo begiekin erreparatuz, erabaki egokia izan zen. Gaindegia euskal populuari eta bere lurraldeari buruzko irudi



homologatua eskaintzen jardun zen egiturako arlo nagusietan, noiz eta globalizazio garai betean.

Geure baitan, ordea, bagenuen zizta egiten zigun arantza bat. Euskal Herria atzeriarekin alderatzeaz gain, gure lurraldearen dimentsio xeheetan, eguneroko bizimoduaren eremu geografikoetan, informazioa eta analisia ematera iritsi beharra zegoen. Udalerrriak, bailarak, eskualdeak, hirietako auzo eta distrituak, ibai arroak, mugaz gaindiko lankidetzaren eremuak. Hamaika dira euskal lurraldearen eremu funtzionalak, eta hamaika ere erronka horietan konprometitutako eragileak. Hala, bide hori urratzen ahalik eta lanik osoena egin genuen: lurralde egiturak katalogatu, indizeak kalkulatu, mapetan irudikatu eta abar.

Oinarri hori jarrita, gainerakoa egiteko zegoen: zein adierazleri eman lehentasuna?, nola eraiki kalkuluari oinarri emango zion eredu matematikoa?, nolako diskurtsoa josi indizeek utzitako argazkian?, nola plazaratu emaitzak?

Urratsez urrats lantaldea osatu genuen, eta, guztiei esker, luze gabe, egondakoei nahiz luzaroan konprometitutakoei esker,



Zer zegokion, ordea, Gaindegiari une hartan? Eta nola egin? Naziogintzaren foro formal eta informaletan ibilitako hamaika lagun bildu ziren hartan, denon bistakoak ziren gabeziak eta aukerak.



mamiz bete genuen behategia. Denborarekin kolaboratzaileak, egitasmoak eta emaitzak biltzen joan ginen. Gaindegiaren kolapsoa iritsi zenerako, euskal herritarrek eta organizazioek bere esku zuten hainbat baliabide eta informazio. Hamaika erreportaje eta ikerlan, datu bilategia, atlas sozioekonomiko interaktiboa, datu espazialen azpiegitura eta abar. Euskal Herriaren definizio operatiboa egiteko lanabesak plantan ezartzera iritsi zen Gaindegia, eta ooren esku jarri zituen.

Aipatzen ari garen esperientzia loratzen zen bitartean, ordea, munduak bilakaera handi eta bizkorra izan zuen. Globalizazioak digitalitatearen garapena ekarri zuen: datuekin lan egiteko teknologia eta prozedura apurtzaileak etorri ziren.

Mundu globalizatuan problematika berriak ere azaleratu ziren (pandemia, klima aldaketa, migrazio prozesuak) eta mugimendu feministak argitutako agendarekin uztartu ziren. Behategiak ahalegina egin zuen digitalitatera egokitzeke, bere eduki guztiak online eta eskura jarrita. Gai berrietara iristeko ere urratu zituen bideak, hala nola informazio sozioekonomikoaren maskulinizazioa gainditzeko eta teknologiaren eta ingurumenaren arloko gaiak dokumentatzen. Baina aipatutako erronka asko berriak ziren humanitatearentzat, Euskal Herriko estatistika plan gehienek ere erabaki gabe zuten nola ekin. Gaindegia antzera iritsi zen une horretara. Bada, eraiki egin beharko.

Gaindegiak bere lehen aroa (2004-2021) agindutakoa betez itxi zuela esan beharrean gara: Euskal Herriaren ezagutzarako eta gogoetarako lehengai izango ziren lanabesak eskaintzea; hots, gure herriaren historian euskal populua eta bere lurraldeaz inoiz egon diren baliabiderik osoenak, zehatzenak eta eskuragarrienak, hamaika arlotako gazte eta helduen ekarpen desinteresatuarekin eraikiak eta, normaltasuna amets, euskal herritarrei baliabide estandarren bitartez eskainiak.

Bai, ahal zen eta orain ere ahal da.



GAINDEGIA 2030



PREST DIRA IBILBIDE BERRIRAKO EUSKARRI NAGUSIAK

Hamarkada honen hasierako mundu mailako osasun krisiak Euskal Herrian (beraz Gaindegian ere) utzi zuen arrastoa gaindituta, behategiak indarberritzeari ekin dio, eta hala eman dio hasiera ibilbide berriari.

Birdimentsionatu egin ditu bai bere egitekoa eta bai barne-egiturak.

Lehenengoari dagokionez, Euskal Herriaren argazki sozioekonomiko eguneratua —urteroko estatistikaren bitartez landutakoa— jorratzen zentratuko da. Horretarako zerbitzua kontratazioaren bitartez lotuko da, eta ez baliabide propioz.

Txosten estatistikoa landuta, horren dibulgazioa eta edukien inguruko gogoeta saioak egitea litzateke bigarren urratsa. Dibulgazioa bai informazio orokorreko komunikabideetan, bai espezializatuetan eta bai hezkuntza mailan, eskoletan eta unibertsitatean. Gogoeta saioetarako, eduki kritikoak aukeratu, eta interes taldeei aurkeztuko litzaieke (enpresaren, sindikatuaren, administrazioaren eta ingurugiroaren arloko adituei, eta abar).

Txostenok, bai eta webgunea, beste hiru hizkuntzatan argitaratuko dira, euskaraz aparte: espainola, frantsesa eta ingelesa.

Barne egiturei dagokienez, elkarteen ohiko zuzendaritza eta bazkideen batzarraz aparte, adar berria jarri du Gaindegiak jada abian. Batzorde Zientifiko izena eman zaio. Ez da izango organo erabakitzailea, aholku emailea baizik, baina erakundearen barruan garrantzi handiko betebeharra izango du.

Hamabost pertsonak osatzen dute batzorde hori. Horien artean Euskal Herrian diren unibertsitate guztietako adituak daude, katedradun, doktore eta ikertzaile. Hor dira Nafarroako eta Euskal Autonomia Erkidegoko uni-



Hogei urte dauka argazki honek. Donostiako merkataritza-ganberako egoitza zaharraren parean aterata dago. Ganberako areto batean burutu zen Gaiendegiaren sortze-batzarra.

Zuzendaritza taldea



Iñaki Dorronsoro
Lehendakaria



Xabier Oleaga
Idazkaria



Joxe Mari Sors
Diruzaina



Anjeles
Iztueta



Txus
Peña



Edurne
Larrañaga



Eguzki
Urteaga



Rafa
Díez Usabiaga



Malen
Dominguez



Anjel
Rekalde



Itziar
Moreno



Carlos
Etxeberri



Miriam Herrero
Kudeatzailea

Batzorde zientifikoak



Anjeles
Iztueta



Dascon
Juhane



Kiko
Caballero



Martin
Larraza



Arantxa
Díaz de Ilarraza




Oskar
Arantzabal



Alberto
Alberdi



Elena
Franco



Ramon
Zallo



Izaskun
Andueza



Mikel
Navarro



Unai
Pascual



Unai
Villalba



Joseba
Makazaga



Jaione
Etxeberria



Jose Javier
Zubikarai



Julen
Bollain

bertsitate publikoak; Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea eta Lapurdiko Estia izeneko Industria Teknologien Goi-Eskola. Falta dira Nafarroako Opuako unibertsitatea eta UPPA Universte de Pau y des Pays de l'Adour, baina espero da bi zentroetako adituak laster izatea batzordean.

Gehienak ekonomia, soziologia eta teknologia berrien arlokoak dira, baina badira administrazio publikoetako goi-kargudun ohiak ere.

Osakideen soslaiak ikusita, batzorde horren helburua da Gaindegia txostenei kalitate bermea eta fidagarritasuna ematea. Lehen egitekoa 2025eko eta hortik aurrerako txosten sozioekonomikoa lantzeko irizpideak proposatzea izango da.

Batzordeko koordinatzailea Anjeles Iztueta da, matematikaria eta Eustateko kide ohi, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburu ohi eta gaur egun Udako Euskal Unibertsitateko Zuzendaritza Batzordeko kidea.

Organo erabakitzaile hori osatzeko, euskal lurraldeak, genero irizpidea, sozio-ekonomiarekiko loturak eta antzerako irizpenen arteko orekak bilatu dira, bai eta pertsonen gaitasuna ere, talde benetan plurala eta eraginkorra izan dadin. Besteak beste, Agirre Lendakaria Center, MonzonLAB eta Ipar-Hegoa fundazioko kideak daude bertan, bai eta Eusko Ikaskuntzako ordezkari bat ere, gaur egungo Gaindegia behategiko lehendakari eta garai bateko Eusko Ikaskuntzako lehendakari izandakoa, Iñaki Dorronsoro, hain zuen.

Pertsona bakarra dago Gaindegian nominan, Miriam Herrero kudeatzailea. Gainerako guztiek boluntario lana egiten dute. Egitekoen finantzaketa, bestalde, finantza erakundeetatik eta Administrazio publikoetatik egitea aurreikusten da. Gaur-gaurkoz, lerrook idazteko orduan, Laboral Kutxarekin eta Nafarroako Gobernuarekin lotu dira ekarpen konpromisoak, baina laster baterako iragarritako daude beste ekarpen esanguratsu batzuk ere.

Jardun esparrua finkatuta eta egiturazko zutabeak eraikitza, ibilbide berriari ekiteko moduan da Gaindegia.

Anjeles Iztueta
GAINDEGIaren Batzorde
Zientifikoko koordinatzailea

«Adierazle sozioekonomikoen sistema berritzaile sendoa eraiki nahi dugu»

Zein da Batzorde Zientifikoaren zeregina GAINDE- GIaren barruan?

Zentzu estuan GAINDEGIaren lanketa estatistikoen kalitatea eta sinesgarritasuna bermatzea da, baina zentzu zabalago batean proposamen tematikoak proposatzea ere bada, oro har, izan ere aholkularitza kualifikaturako lantaldea osatzen baitu, eta alde horretatik proposatzaile eta orientatzaile zeregina dagokio.

Osaketa kontuan hartuta, zein dira batzorde horren ezaugarriak?

Euskal Herri osoko esperientzia handiko hamabost pertsonak osatzen dute Batzorde Zientifikoa. Disziplina askotakoak dira: Ekonomia, Ingurumena, Soziologia eta Gizarte Zientziak, Data Zientziak eta Teknologia. Saiatzen ari gara genero eta euskal lurraldeen arteko orekak egiten ere; ildo horretan ere bagoaz helburuetara hurbiltzen. Taldea osatzen dutenen artean, Euskal Herrian kokaturiko unibertsitate guztietako ordezkariak dauzkagu, bai publiko, bai kooperatibo eta bai pribatu, katedradunak, doktoreak nahiz ikertzaileak. Baina badira Administrazioan ibilitako ekonomia alorreko kargudun ohiak ere.

Epe laburrerako, nolako eginkizuna du Batzorde Zientifikoak?

GAINDEGIAk garatuko duen Euskal Herriko adierazle sozioekonomikoen sistema berritzeko proposamenak lantzea izango da datorren urteko gure egiteko nagusia.

Nola berrituko duzue adierazle sistema?

Gaur egun estatistika sozioekonomikoen kontzeptua, eta BPG kontzeptuarena bera, asko zabaldu da. Lurralde bateko adierazle-sistema berriak gai izan beharko luke lurraldearen osasun ekonomikoa, soziala eta ingurumenarena modu orekatu eta integratuan neurtzeko. Horretarako, hainbat arlo jaso beharko lituzke, bakoitza bere adierazle-multzo espezifikoekin.

Nolako atalak izan behar lituzke?

Batzuk aipatuko ditut, zerrenda bera eztabaidagarria baita. Ekonomiaren iraunkortasuna, esate baterako. Ekonomia iraunkorra lortzeko, esate baterako, hazkunde ekonomikoaren kalitateaz gain, kontuan hartzen dira ingurumen eta gizarte inpaktuak ere. Ongizateari erreparatzen badiogu ere, ongizate orekatuak gizartearen beharrianak modu egokian asetzea du helburu, hau da, kohesioa eta kalitatezko bizitza bermatzea. Edo ekonomia eta lan merkatua: Ekonomiaren eta lan merkatuaren adierazleek herrialdearen egonkortasuna eta lehiakortasuna aztertzen dute, baita langileen ongizatea ere. Klima aldaketa eta ingurumena sailhestezinak dira gaur egun. Klima aldaketari eta ingurumenari buruzko adierazleak ezinbestekoak dira garapen iraunkorerrako.

Eta klimarekin batera, oraintsuagokoak diren neurketak ere bai, ezta?

Bai, noski. Zaintza, esate baterako. Gaur egun, zaintza neurtu beharra dago. Alegia, atal berritzaile honek ekonomia formaletik kanpo dauden baina bizitza sostengatzeko ezinbestekoak diren zaintza-lanak neurtu eta baloratzen ditu. Edo azpiegitura eta garraio jasangarria. Lurralde bateko azpiegiturak eta garraioa jasangarriak badira, ingurumenarekiko errespetua sustatzen da, eta aldi berean herritarrek baliabideetara sarbide orekatua izango dutela. Berrikuntza eta digitalizazio atala ere hor dago. Teknologia eta berrikuntza ekonomia jasangarri eta inklusibo baten bultzatzaile gisa aztertzen ditu.

Kontzeptu berriak, beraz?

Bai, kontzeptu asko berriak dira eta ia oraintsu arte BPGtik kanpo utzi dira. Birpentsatzea dagokigu, euskal lurraldearen egoera eta etorkizuna aurreikusteko lagunduko diguten datuak eskaintzeko asmoarekin. Adierazle sozioekonomikoen sistema berritzaile sendoa eraiki nahi dugu.

Estatistika datuen iturri ofizialak ere asko zabaldu eta garatu dira... Beraz, datuak aukeratu egin beharko ditugu, arkitektura kontzeptual estrategiko eta berritzaile bati begira.

Datuak bilatzeko iturriak ere ugariak izango dira, Euskal Herria hiru administrazio esparrutan banatuta baitago...

Bai, GAINDEGIAk datu estatistiko ofizialak makro mailan erabiliko ditu batez ere, Euskal Herriko lurraldeen errealitatea ezagutarazteko eta epe laburreko eta luzeko plangintza estrategikoan laguntzeko. Datuak bateratzeak, bestalde, zailtasunak ekarri arren, hainbat abantaila eta helburu garrantzitsu ere baditu. Zailtasunak aipatzearen, datuak iturri anitzetatik datoz (sektore publiko, pribatu eta nazioartekoetatik), eta bakoitzak neurketa irizpide eta definizio desberdinak izan ditzake. Datuak bateratzeak koherentzia eta kalitate bermatzea eskatzen du, eta, batzuetan, lurralde eta sektoreen arabera metodologiak homogeneizatzea erronka handia da.

Eta badago, hala ere, iturri horiei izen-abizenak jartzerik?

Datu iturri ofizialetara bagoaz, gertukoak ditugu Eustat (Eusko Jaurlaritzakoa) eta Nastat (Nafarroako Gobernuakoa). Nastat, hain zuzen, INEren Nafarroako zehaztasunetarako. Eta Frantziako Insee erabiltzen dugu Ipar Euskal Herriko neurketetarako. Baina eskura ditugu bost merkataritza ganberetako datu ekonomikoak ere; alegia Bilbo, Baiona, Donostia, Gasteiz eta Iruñekoak.

Estandarrik badago?

GAINDEGIAk hasieratik erabaki zuen estandar homologatuari jarraitzea, metodologia eredu bezala. Kasu honetan, OCDE eta Eurostat.

Eta teknologia aldetik?

Hogeitazko urte dira GAINDEGIA abian jarri zela. Hasieran ere ez zen erraza Euskal Herriko datuak eskuratzea eta metodologia aldetik bateratzea. Lan bikaina egin da dago alde horretatik. Hor dira Euskal Herri osoko Datu Talaia eta atlas interaktiboak.

Teknologia asko aurreratu da. Zabalkunde euskarriak askotarikoak dira, eta asko hobetu dira. Software irekian lan egin daiteke. Digitaletan prestatzen dira PDF bertsio5 laburrak ere euskarri askotarako, PC, tableta, telefono eta papera, eta sare sozialetan azkar eta era askotara zabaltzen dira.

gaindegia.eus